

ARGIA

HORMIGOIA ETA KLIMA *Norabidez aldarazi beharreko sektorea*

12-15. orriak

Lurraren Altxamenduak sareak aktualitatean kokatu du arazoa eta berriki atxilotetak izan dira honen gisako ekintzengatik.



2.829 | 2023 / 06 / 18 | 4,00 €



Presioak gaina hartzen duenean

26 | KIROLA



Esku gehiago eta erreminta zorroztuak

38 | BIZI BARATZEA




“Hurrek ikusten dutena ikasten dute, ez esaten dieguna”

32 | ESTHER MARTINEZ

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #286
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



BIDART ANAIAK

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **NnoMan - ENCRAGE**

Iritziak

- 21 | MIKEL OTERO
- 22 | DAVID BOU
- 23 | SONIA GONZÁLEZ
- 24 | ARKAITZ ZARRAGA
- 24 | EVA PEREZ-PONS
- 25 | ZIGOR ETXEBURUA

Finkoak

- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
JORDINA ARNAU
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


12 | HORMIGOIAREN AZTARNA EKOLOGIKOAK

Jenofa Berhokoirgoinek Net Hurbil atalean azaldu ditu hormigoiak klima larrialdian eta biodibertsitatean dakartzan kalteak. 2050erako 25 milioi kilometro bide berri eraikitzea da aurreikusitakoa. Klima Larrialdiari Buruzko Gobernuarteko Taldeak gomendatua du hormigoia erabilera murriztu behar dela.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ANAÍS CÓRDOBA-PÁEZ

"Dolua kolektibizatzen baduzu, alaitasuna ere kolektibizatu behar duzu"

Danele Sarriugarte

26 | KIROLA

Gorputza landu, burua zainduz

Eñaut Agirrebengoa

32 | GIZARTEA | ESTHER MARTINEZ

"Haurrek ezinbestean apurtuko dituzte mugak, bizitzaren inguruan ikasten joateko"

Mikel Garcia

38 | KOMUNITATEA | BIZI BARATZEA

Esku gehiago eta erreminta zorroztu berriak

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA | "DESMUNTATZEAK ETA ORNAMENTUAK"

Erresistentzia artistikoa, deseraikitze kapritxosoetan

Gorka Bereziartua



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaita Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Leire Rodriguez, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartziandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa


Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA
honako enprekin batera:



Doan eta libre


ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.




Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

Planeta jaleak

Gizakiaren, edo zehatzago esanda, gizonaren jarduerak Amazoniaren %38 andeatu du hogei urte baino gutxiagoan. Klima aldaketaren negazionista eta agroindustriaren aliatu Jair Bolsonaro joan zen. Lula iritsi da Amazoniarako aldaketa-proposamen handiekin. Baina galderak hortxe darrai: nola "salbatu" 50 milioi urtez eboluzionatu duen munduko oihanik handiena eta bi mende baino gutxiagoan ia "suntsitu" dutena? Ura "baliabide", zuhaitzak "merkantzia" eta oihana "aktibo ekonomiko" gisa ikusteari utzi arte, nago ez dela gobernurik edo zibilizaziorik izango makina autosuntsitzaila geldiaraziko duenik. Naturarekiko bizikidetzeta, bistan denez, auzi politiko-ekonomikoez zeharkatzen dute, baina nagusiki zio kulturala da.

 Brasilgo Amazoniako hiriburu Manaus. M.DANTAS/AFP/GETTY

 AXIER LOPEZ



Migratzaileak atxilotzeagatik jai-egunak poliziei

ERREDAKZIOA

Migratzaileak atxilotzea saritzen duen neurria onartu zuen ekainaren 6an Espainiako Poliziaren Irungo taldeak: asteburuan migratzaile bat atxilotzeagatik, hiru jai-egun; bi migratzaile edo gehiago atxilotzeagatik, lau jai-egun; eta hamar atxilotutik gora, bost. Poliziaren sindikatuak salaketa jarri eta ordu gutxira neurria bertan behera utzi zuen Espainiako Poliziaren EAEko buruzagitzak.

Uztailaren 1etik aurrera sartu behar zen indarrean neurria, Atzerritartasun eta Mugen Irungo Brigadako buruak astearte honetan sinatua. Hortik gutxira, baina, sare sozialetan neurria salatu zuen Espainiako Poliziaren Jupol sindikatuak, eta orduztara, Espainiako Poliziaren EAEko buruzagitzak bertan behera utzi zuen neurria. Irungo buruak halako neurri bati argi berdea zergatik eman zion ere ikertuko dute.

OHIKO POLITIKA

Afera honen harira, Jupol sindikatuak aitortu du migratzaileak atxilotzeko

Proposamen horren bidez, "oraindik segurtasun-indarretan gera daitekeen arrazismoa legitimatzen du Poliziak"

presioak jasotzen dituztela espainiako poliziek Irungo Atzerritartasun eta Mugen Brigadaren partetik. Gainera, mehatxuak eta txantaiak ere ohikoak direla adierazi du, "estatistika" betetzeko. Hau da, beste toki batera lekualdatzeko mehatxupean geroz eta atxiloketa gehiago egitera bultzatzen dituzte Espainiako poliziak. Bide batez, antzerako presio eta politikak ohikoak direla aitortu du, "urte luzez normalizatu" dena.

PAPERIK EZ IZATEA EZ DA DELITU

Irungo Harrera Sarearen hitzetan, gertaturikoa "harrigarria eta asaldatzailea" da, eta gogorarazi du pertsona migratzaileek oinarritzko eskubideak dituztela; "bizitza hobetzeko edo salbatzeko bidaiatzea da horietako bat". Harrera Saretik nabarmendu dute paperik ez izatea falta administratiboa dela, "trafiko isuna izatea bezala, ez delitu penala".

Atxiloketak saritzeko proposamen horren bidez, "oraindik segurtasun-indarretan gera daitekeen arrazismoa legitimatzen du Poliziak, eta indarrean dauden balio demokratikoak deslegitimatu ditu", dio Harrera Sareak.

Irun, Urruña eta Hendaia inguruan, muga administratiboa tarteko, migratzaileek Poliziarengandik jasaten duten jazarpena behin baino gehiagotan salatu dute harrera sareek eta migratzaileek eurek. Kontrol polizialeatik ihesean, hainbat migratzailek bizia galdu du arriskutsuak izan daitezkeen bideetatik muga gurutzatu nahian. ●



GARI GARAIALDE

MATERIALISMO HISTERIKOA

Kanpaina berriro



UXUE APAOLAZA LARREA

Kanpaina amaitu zen, eta hauteskundeetako emaitzei buruz hitz egiteko gogo gutxi zuen batek berriro ere kanpaina iragarri zuen, errealitatearekin uneko lotura gutxi edukitzen duen gurpil bat (errealitatea ikustea desatsegina zitzaionez), titularretatik eguneroko errealitatea egozten duen fikzio emozionala. Sozialdemokratizatzen gaituen jarduera. Ez dizuet gezurrik esango, eskuak igurtzi nituen, festa berriro, Sálvame kenduko digute, eta ordezko bikaina dira kanpainak, ni leku askotakoei lotzen natzaie, hemengoei, eta Argentinakoei bereziki, errealitateetik urruntzeko, dibertitzeko.

Alderdi bakoitzak aukeratzen ditu bere kanpainako gaiak, eta horiek dosifikatzen dira. Egunerokoak ez du zirrikitu handirik izaten, eta gaiak errealitateari lotuagoak (zaintza) izan daitezke, edo fantastikoagoak (ETAgok). Uholdeak baldin badaude, metaforaren bat, lekutu eta argazkiren bat, katuska eta guzti; hilketa matxista bat baldin bada "hasi nahi nuke gogora ekarriz, beste behin ere..." bat, isiltasunen bat, eta "pozteko garaia da". Hori gertatu da, ez? Izan ere, kontratatutako aulki-jartzaileek ere aurrera egin behar, martxan jartzen den makinaria guztiak (telesailen batean bereziki gozatu ditut kanpainen tripak: *The good wife*, *The West Wing*, *Vota Juan*).

Baina ez da komeni errealitateetik gehiegi urruntzea ere, zure boto emaileak errealitatea dela uste duenetik behintzat. Adibidez, Euskal Herrira etortzen bazara ezkerreko botoaren bila, EH Bilduri errieta egitea urruntzea da, baita Herri Urratsen kontura eskola publikoaren aldeko aldarria gutziz desitxuratzea ere, baita euskaraz konpontzen ez diren hautagaiak jartzea ere, baita euskara antidemokratikoa dela... Urruntzea da, Espainian, ministro feminista hala delako zigortzea, Errejoni gertatuaz ez ikastea (medioak ez dira zure boto emaileak), "irabaziko dugu" oso fuerte esatea nahikoa dela pentsatzea... Errealitateari jarrera speedikoz ixkin egiteak PP eta Vox esan nahi du. Asko sozialdemokratizatu beharko da Espainiako boto emaile ezkertiar gaixoa. ●

EZ HANKA EZ BURU

ELKARTASUNA GUREKIN EDO...



ADR

Ertzaintza

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak gutxienez 3 ertzain zigortu ditu, eraso matxisten biktima batzuk desegoki artatzeagatik. Arartekoak "praxi okerra" antzeman du, eta biktimekin aritzen diren ertzainei "enpatiaz" jokatzeko neurriak eskatu dizkie.

Kontrola

Gasteizko Udalak pertsonen mugimendua monitorizatu nahi du. mugikorren seinaleen bidez. Hiriko hainbat puntutan sentsoreak jarri dituzte, bertatik igarotzen diren pertsonen portaera aztertzeko. Turismo Inteligentziarako Sistema du izena.

Eskozia

Nicola Sturgeon Eskoziako lehen ministro ohia atxilotuta izan dute zazpi orduz, eta kargurik gabe aske utzi dute ondoren. Bigarren erreferenduma egiteko dohaintzan jasotako diruari lotuta dago kasua. Ikerketak irekita jarraitzen du.

Unibertsitatea



ULA IRURETAGOIENA

EHUko irakasle izateagatik, hitzaldiak emateko gonbitea jaso dut maiz. Sarri, musutruk edo ordainsari baxuen truke. Irakasle izateagatik suposatu dute soldata duin eta egonkorra nuela. Inork ez dit lan-egoeraz galdetu. Nik ez dut ahoa ireki.

Unibertsitatean profesional eta irakasle lanak elkarrekin eramateko kontratu zehatz bat dago, elkartu-irakaslea. Urtero berrizatzen da eta hiru urtero plaza lehiaketara ateratzen da. Ezegonkorra eta langabezia eskubiderik gabea da.

Espainiako Estatuak unibertsitatei buruzko lege berri bat onartu du (USLO), Euskal Herriko unibertsitateetan eragina izango duena. Eragin esparru handi bat elkartu-irakasle kontratuetan egongo da, egonkor egiteko helburuarekin. Baina horretarako, lanaldi orduak murriztuko ditu, eta proportzio horretan, baita soldatak ere. EHUko elkartu-irakasleen herena arkitektura eskolan biltzen da. Oraindik ez da argitu gurean legea nola aplikatuko den. Laguntzailer-doktore kontratuak sortuko ditu elkartu-irakasle doktoreentzat, baina ez denontzat seguraski. Berregituraketak diru-partida bat eskatuko du, baina legeak ez du esaten nola lortuko den finantzaketa berria.

Estatuko arkitekto elkartu-irakasleen txat bat osatu da. Hainbat fakultatetan egoera oso larria da elkartu-irakasle kopuru altuagatik eta grebak egin dituzte. Aldaketa honek arkitektura unibertsitatearen irakas-kuntzan irakurketa zehatz bat du: profesionalen figura ahuldu egingo da, akademikoaren alde. Medikuntza zabal onarturik dago ezin dela esperientzia profesionalik gabe irakaskuntza eskaini, zirujiaren funtsa helarazteko operazio-gelan egon izana beharrezkoa dela alegia. Baina egurrezko egitura baten aurrean, ez da berdin ulertzen.

Arkitektura irakaskuntzak bietatik eraman behar du ikasgelara; hausnarketa politiko-filosofikoa eta praktikaren eskarmentuak ekartzen duen jakintza partikularra, esperientzia akumulatua bakarrik eskuratu daitekeena. Bakoitzetik zenbateko proportzioan, eztabaidarako gaia da, urrutitu gaudela horretarako. ●



COMUNIDADBARATZ

Eskolarik ez, liburutegi duinik gabe

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Irakurtzen dutena ulertzeko zailtasunak dituzte gazteek, azken kanpo-proben arabera. Ezinbestean dator galdera: irakurtzeari eta irakurzaletasunari nahikoa garrantzi eta denbora ematen al diegu etxean eta eskolan? Eskoletako liburutegiek ba al dute izan behar luketen zentraltasuna? Liburu (interesgarri)z betetako apalak, ikasgelak eta liburutegiak al ditugu gure ikastetxeetan?

PIRLS nazioarteko kanpo-probaren arabera, irakurtzen dutenaren ulermena okerrera egiten ari da azken urteotan, 10-11 urte inguruko haurrengan. Nafarroa Europar Batasunaren batez bestekotik behera geratu da proba horretan, eta EAE aurten ez da aurkeztu, baina aurreko proban ez zituen emaitza onak atera. Aste berean, manifestua kaleratu dute Espainiako Estatuak hainbat akademikok, tartean Hego Euskal Herriko unibertsitatekoek: eskoletako liburutegiak berreskuratzea eta dinamizatzea eskatzen diote administrazio publikoari, plataforma digitaletako irakurzaletasunak ez dezatela paperezko liburutegia ordezkatu (aberastu baizik), ezagutza eta informaziorako sarbide izugarria direlako liburutegiak, eta denentzako direlako gainera, egoera sozio-ekonomikoa dena delakoa.

Eskolako liburutegiak ez ditugula behar bezainbeste zaintzen adierazi zigun Parean elkarteak: "Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila bera da liburutegien aldeko apusturik egiten ez duena: lehen, eskola guztietan zegoen liburutegi arduraduna eta leku batzuetan jardunaldi osoko lanaldia izaten zen, baina hori poliki-poliki desagertzen joan da".

Zure herriko ikastetxeek ba al dute liburutegia? Duina al da, leku atsegina, liburu eskaintza zabala duena? Ba al dago norbait nahikoa denbora eskaintzen diona liburuak ekartzeari, aukeratzeari, aholkatzeari...? Ikasgelak liburuz betetako espazioak al dira oraindik? Eta etxeko pasillo, egongela eta logelak?

Behin istorio interesgarri betetako apalak eskura ditugula, irakurzaletasuna sustatzeko gakoak ez dira sekretua: haurrak berak liburuak eta gaiak aukeratzeko, elkarri gomendatzea, eskolan eta etxean patxadaz irakurtzeari denbora eskaintzea (isilean, ozen, bakarka, elkarrekin, taldean, zalantzak eta inpresioak partekatzen...), eta jakina, helduok ere irakurzaletasunari eustea, nekez transmitituko baitugu irakurketarako pasiorik, guk geuk gozatzen ez badugu. ●

1.700

ertzain eta lau orduko zirkulazio mozketak, hori da Frantziako Tourrak Hego Euskal Herrian utziko duen ondorioetako bat. Eusko Jaurlaritzak inoiz izan den "segurtasun-operatibo" handienetako bat aurkeztu du.

20

urteko espetxe zigorrak eskatu dituzte Tubacex enpresako hainbat grebalari eta Aiaraldeko bizilagunentzat 2021eko grebako mobilizazioetan parte hartu zuten zazpi pertsona epaituko dituzte.

8

ikastetxek (alegia, hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek) eta horietako guraso elkarateek adostu dute haurrei ez dietela smartphonerik erosiko, gutxienez 13 urte bete arte, Irlandako Greystones hirian.

“Maialenen babesaz arduratzen diren erakundeen arteko komunikazio akatsen kateatzea gertatu da”

JOSU ERKOREKA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak hala onartu du, Maialen Manzónen hilketan matxistaren harira sortutako erreakzioen ostean.

2023-06-06



“ERRESISTENTZIAN ARI DEN SENEGALGO GAZTERIA BELDURTZEA ETA INDARKERIA ERABILTZEA DA MACKY SALL PRESIDENTEAREN XEDEA”

Azken asteetan Senegalen areagotu den errepresioari erantzunez, kalera atera dira Euskal Herrian ere, Macky Sall presidentearen “diktadura” bertan behera uzteko eskatzeko.

2023-06-06

“Nafarroako Gobernua ixten ari da hizkuntza eskolan ongi funtzionatzen duten euskara taldeak, nahikoa ikasle dituztenak, ez dakigu zein irizpideren arabera”

JAUME GELABERT

Iruñeko Hizkuntza Eskolako euskara irakaslea.

ARGIA.EUS (2023-06-07)



TEKNOLOGIA

Etorkizuneko ikasgelak hackeatzen



DIANA FRANCO

Nire zaletasunetariko bat sortzaileen lantegiak bisitatzea da. Askok bizilekua eta sorlekua elkarrekin lotuta zituzten, lehenaldian nabil, bisitatu ahal izan ditudanak antzinako sortzaileenak izan direlako. Han egonda, ulertzen duzu zeinen garrantzitsua den espazioa eta ingurua sorkuntza prozesuetan.

Izango dugun etorkizuna, proiektatzen dugun etorkizuna izango da. Egun, ikastetxe askotan ditugun egiturak oso zurrinak dira, eskulana sortzeko diseinatu zirelako. Hori bai, irakasle hacker asko dugu inguruan eta bizitza on baterako beharrezkoak diren balioekin hackeatu dituzte ikastetxeetako dinamikak: elkarbizitza, errespetua, zirkulazio librea, gorputza... Zementuzko egituren baitan hainbeste ordu ematen dituzten haur eta gazteek, bizitza on baterako dimentsioa ere arnastu dezaten.

Pozgarria da jakitea Hezkuntza sailaren baitan, ikasleek egon behar duten espazioari eta ikasketa dinamikei gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola. Eta duguna hobetze aldera, proiektu ezberdinak sortzen dabiltzala, tartean Etorkizuneko Ikasgela: Sormen Glab deitua. Momentuz froga fasean da.

Zoritarrez, Sormen Glab-aren mundu-ikuskerak da pantailak hegemonikoak izango diren etorkizun baterako ikasleak prestatzea. Pantaila bidezkoa da klaseko dinamika asko. Etorkizun horretan, pantailaren atzean bideratzen diren prozesuen laguntzaile soil bilakatuko da irakaslea? Antzinako sortzaileen lantegietan bezala, eskuak zikinduko dituzte ikasleek? Plastilinarekin eraiki edota buztinarekin moldatu? Elkar ukitu ahal izango dute ikasleek ala harreman guztia pantailen bidez emango da? Sorkuntza eta esperimentazio askerako tokia egongo da?...

Ziur naiz dena ez dela hain zurruna izango, hezkuntza komunitatearen eta ikasleen errealtateek etorkizuneko gela horri benetako bizitza emango diotela, erabilera puntaletarako espazioa baino, laborategi bizi bilakatuko dituztela. Beharbada software librea instalatuz, beharbada kitak erosi ordez jostailuetako aldagai elektronikoak berrekuratuz... berriz ere, egitura zurrun bat bizitza on bat baterako espazio bilakatuz. ●

NAZIOARTEA



Messi eta Miamiko antikomunistak

AXIER LOPEZ

Futbola eta politika ez dira nahastu behar. Hala dio, bederen, 'Kapitalismoaren kontraesanak saihestu eta lasai bizitzen jarraitzeko gidaliburuak'. Liburuxka hori inoiz idatzi ez bada ere, gure artean oso zabaldua dago uste hori. Futbola eta negozioa eskutik helduta doaz. Munduan diru gehien mugitzen duen industrietakoak Lionel Messi du izarririk handiena. Berriki, "munduko jokalaririk onenak" erabaki du AEBetako Inter Miamin jokatzea. Esan gabe doa, ez doala hango ligaren erakargarritasunagatik, poltsikoratuko duen dolar kopuruagatik baizik.

Inoiz baino gehiago kobratzeko iritsi da Miamira Messi: 50 milioi euro denboraldi bakoitzeko, gehi zenbait portzentaje mamitsu: transmisio eskubideen irabazientatik, ligako produktuen salmentengatik, eta beste batzuk. Inork ez du zalantzan jartzen bere kontratazioa negozio handiago batekin lotuta dagoenik: 2026ko Munduko Futbol Txapelketa AEBetan, Mexikon eta Kanadan egingo da. Gainera, AEBetan ere antolatuko den 2024ko Amerika Kopako irudia izango da argentinarra. Miamira joan aurretik, Saudi Arabiaren proposamenak baztertu ditu, heriotza-zigorra zigor koderik gabe aplikatzen duenarenak, 2022tik Messi turismo-enbaxadore duen diktadurarenak –urtean 7,5 milioi euroren truke–.

Abya Yalako ezkerreko gobernuen aurkako konspirazioen (Venezuela, Brasil, Bolivia, eta noski, Kuba) hiriburua da Miami, eta bere futbol taldeak ere badauki horretaz. Inter Miamiren jabetza bi enpresabururena da, Jorge eta José Mas

Canosa anaiena. Aita Jorge Mas Canosa zuten, Kubako iraultzaren etsai suttsua. Fundación Nacional Cubano-Americana-ren ideologoa izan zen, 1997an Habana-ko nazioarteko hotelen aurkako atentatuak finantzatu zituen. 1961ean Playa Girónen inbasioan ere hartu zuen parte Mas Canosak. Ronald Regan presidentearekin harreman ona zuen antikomunista hori enpresari bihurtu zen MasTec telekomunikazio enpresaren eskutik. 1992an, Andrew urakanak Florida hegoaldeko zati handi bat suntsitu ondoren, Canosak bere aberastasuna izugarri handitu zuen, bere enpresa berreraikitze-lanetako onuradun handienetakoa izan zelako.

Haren semeak ezagun dira Espainiako Estatuan, arazo larriak izan zituztelako fiskoarekin. Mas Canosa familiak 1996an erosi zuen Sintel, Telefonicaren enpresa subsidiarioa, Aznarren gobernuaren pribatizazio politikei esker. Lau urte geroago, 2000n, 900 pertsona kaltetu zituen enplegu-erregulazio espedientea ezarri zuten Sintelen. Langileek 187 egunez okupatu zuten Madrilgo Castellana pasealekua. Azkenean, Miamiko Auzitegi Federalak familia antikastristaren aurkako salaketa bat jaso zuen, Sinteletik zortzi bat milioi euro Mas Canosaren jabetzako beste sozietate batzuetara desbideratzeagatik. Hamar urte baino gehiagoko auzi horretan, epaiketa saihestu zuten akordio bati esker: MasTec-ek 35 milioi euroko kalte-ordainak ordaindu zizkien langile eta hartzekodun ohiei.

Baina politikaren kontu zikin hauek ez dezatela ikuskizuna zikindu. ●

Euskara nafar guztiena dela aldarrikatu dute

📷 EKINKLIK

IRUÑEA / Irulegiko aurkikuntzak uholde bat ekarri zuen euskararen bertakotasunaren inguruan, eta haren gainean, iragan urtarrean aurkeztu ziren Sorionekuak manifestua eta mugimendua: euskaraz bizi den eta bizi nahi duen jendea batzen du Sorionekuak ekimenak, euskalgintzara beste egiteko modu bat ekarri nahi dutela diote, euskara nafar guztien hizkuntza delako. Ekainaren 10ean festa eta aldarrikapen eguna egin zuten, Iruñean.



Ertzaintza

Beste neurri arrazista bat hartu du Danimarkako Gobernuak: hurrengo hamar urteetarako, auzoetan %30eko muga jarri nahi du biztanleria "ez mendebaldarrarentzat". Azken urteetan, beste hamaika neurri arrazista ezarri dituzte herrialdean.

Kutsadura

Erresuma Batuak Repsolen, Shellen eta Petronasen iragarkiak debekatu ditu; "herritarrak engainatzen" ari direla dio Irigarki Arauen Arduradunak, energia berriztagarrien inguruko iragarkietan ez dutelako aipatzen enpresa horiek eragiten duten kutsadura.

Kutsadura

Jet pribatuek mugarik gabe jarraituko dute hegan Europar Batasunean. Europako Batzordeak ez du araurik ezarriko garraioberik kutsakorrenetakoa den hegaldi pribatuen inguruan, 2024ko maiatzera arte.

HORMIGOIA HERRI BAT BALITZ... MUNDUKO HIRUGARREN HERRI KUTSATZAILEENA LITZATEKE

"Lafarge eta bere konplizeak [hormigoia-aren sektorea] haien baitarik ez dira geldituko, geldituko dira horretara behartuz gero", zioen Lurraren Altxamenduak sareak iazko abenduan egindako ekintza azaltzeko orduan. Mundu mailako lehen hormigoia eta zementu ekoizlea da Lafarge eta trantsizio ekologikoari bizkarra emanez, lurra betoiez estaltzen segitzen du. 2050erako 25 milioi kilometro errepide berri aurreikusiak dira munduan. Abenduko ekintzari loturik, mundu gris horren aurkako hamabost aktibista atxilotu eta lau egunez galdekatu zituen Frantziako Poliziak iragan astean, azkenean libre eta kontrol polizialik gabe uzteko. Aktualitate bero horretan, ARGIAk hormigoia-aren sektoreari begiratu nahi izan dio.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lafarge, zementu eta betoi ekoizle den multinazionalaren lantegi batean sabotajea egiteagatik atxilotu zituzten ekainaren 5ean hamabost bat aktibista -tartean, baionar eta hendaier bana-. Azkenean, libre eta kontrol judizialik gabe utzi zituzten, eta agintariak harturiko "norabide autoritario arriskutsua" salatu zuen Lurraren Altxamenduak sareak. Ekologista erradikalak eta Lurraren Altxamenduak sarea "ekoterroristak" dira Frantziako Gobernuaren begietan. Horrela definitu zituen Barne ministro Gerard Darmaninek iazko urri bukaeran *megabassine*

edo agroindustriarako uraska erraldoi proiektua salatzeke elkaturiko 5.000 manifestariak.

Aldi honetan lurraren artifizializazioaren aurka borrokan dabiltzanak ditu jomugan. Iazko abenduaren 10ean batu ziren 200 aktibista Frantziako Bouc-Bel-Air herriko Lafarge lantegian, multinazional horren aktibitate klimatizidoak salatzeke. Egunean bertan zabaldu zuen bere irakurketa politikoa Lurraren Altxamenduak sareak: "Beren kalteez hondatutako munduan etorkizunik gabe uzten dituzten belaunaldien haserreaz ez dute ezer entzuten

Lafargek eta bere konplizeek. Hiltzen gaituzten armak dira haien makinak, siloak eta nahasgailuak. Haien baitarik ez dira geldituko, geldituko dira horretara behartuz gero. Beraz, hondamendi-azpiegitura hauek desegiten jarraituko dugu. Hormigoia okupatzeko, blokeatzeko eta armagabetzeko deia egiten diegu Lurraren alde altxatzen diren guztiei".

Hormigoia-aren sektoreari begira jarri gara, ingurumenean duen eraginaz gehiago jakiteko asmoz. Bistan denez, Lafarge bera izan genezakeen ikergai gisa, dakigulako guzia ez duela eder: "Gizadiaren aurkako krimenen



CO2 ISURKETAK

CO2 isurketa alimalea ondorioztatzen du betoia beharrezkoa duen zementuaren ekoizpenak: tona bat hormigoiren ekoizpenak tona bat CO2 ondorioztatzen du.

konplize" izateagatik zigortua izan delako, Estatu Islamikoa eta beste gisa horretako erakundeei milioiak eman izanagatik gutienez 2013 eta 2014 urteetan, Sirian zuen lantegi bat martxan atxikitzearen truke. Bere hainbat proiektu klimatizida ere izaten ahalko genituen hizpide. Baina begirada zabaldu eta sektoreari begiratu diogu, Lafargen eragina gutxietsi gabe, hain zuzen, multinazional hori delako mundu mailan sektoreko lehen indarra.

Hormigoia herri bat balitz, munduko hirugarren kutsatzaileena litzateke, AEBen eta Txinaren ondotik.

**Mundu mailako
gas isurketen %10
eraikuntzaren sektoretik
dator, eta horien
%52 hormigoia
ekoizpenetik**

HORMIGOIA, HIRUGARREN HERRI KUTSATZAILEENA

Zifra batzuk ezagutzuz gero laster irudikatzen dugu ekoizpen horren eragina. Demagun, mundu mailako gas isurketen %10 eraikuntzaren sektoretik dator eta horietan %52 hormigoia ekoizpenari lotua da. Pentsa tona bat hormigoiren ekoizpenak tona bat CO2 ondorioztatzen du eta jakin mundu mailan 150 tona direla ekoizten segundu oro. Trantsizio ekologikoa ezinbestekoa dugun honetan, zentzuduna da Lafarge eta bere gisakoen interpelazioa. Ondokoa irakurri dezakegu 2021ean *Mediapart*-ek

plazaraturiko *Sortir du tout-béton, le défi des architectes* ("Oro-betoia erdutik ateratzea, arkitektoen desafioa") erreportajea: "Laburbiltzeko, siderurgiako Arcelor-Mittal-en (hormigoiak estaltzen duen burdinaren ekoizle nagusia dena) eta Lafarge-Holcim-en artean Frantziak bezainbeste CO2 isurten dute atmosferara".

Zenbaki horiek esku artean, nekez ulertu daiteke hormigoia eta zementuaren sektoreaz hain guti hitz egitea. Nolaz ez da hegazkinez, petrolioaz zein pestizidez bezainbat hitz egiten betoiaz? Zergatik hain leku guti du COP27 gisako klimari buruzko gailurretan?

Baina Lurraren Altxamenduak sareak, Greenpeace edo Extinction Rebellionek egindako informazio eta interpelazio lanari esker, hasiak dira, hala beharrez, beraien doi bat berdetzen. Lafarge enpresan ekoizpen iraunkorren ardura duen Floren Duboisen *Béton écologique et construction durable* ("Eraikuntza iraunkorra eta betoi ekologikoa") liburuarekin adibidez. Hala ere, ikusiko dugunez, ezin uka *green washing* edo dagoen jokabide klimatizidua berdez pintatzeko joeratik duela gehiago.

Zementuak elkar lotzen dituen urez, hareaz eta legarrez osatua da hormigoia; eta zementua da betoiaren karbono-aztarnaren ia %90aren erantzule. Hormigoia dekarbonizatzea, beraz, zementua dekarbonizatzeari dagokio. Jakin behar da zementu hori egiteko, buztin eta kareharri nahasketa bat berotzen dela ordu luzez eta 1.200 graduko tenperaturan. Horrela lortzen dugu klinkerra –gehien erabilitako Portland zementuaren osagaien %80 eta %100 artean dugu klinkerra-. Arazoa da bere ekoizpenak ondorio larriak dituela klimaren gain: errez, CO2 kantitate izugarriak askatzen ditu kareharriak. Zementuaren karbono-aztarnaren bi herenak datoz prozesu horretatik.

Hori horrela, isurketak tipitzeko asmoz karbono harrapaketa garatu nahian dabilta sektoreko industria-lak. Besteak beste, betoian kokatu nahi dute CO2aren zati bat ala hormigoia idorketan baliatu karbono dioxidoa.

“ZEMENTU BERDEAREN” GEZURRA ETA MANIPULAZIOA

Klinkerraren kantitatea guttzeko ala deuseztatzeko bideak ere irekitzen dabilta, besteak beste iraunkorra-



LAFARGE ENPRESA JOMUGAN Mundu mailan, betoiaren eta zementuaren sektoreko lehen indarra da enpresa frantses hori. Iazko abenduaren 10ean 200 ekintzailek burutu zuten sabotaje ekintza Lafargen Bouc-Bel-Air herriko lantegian, enpresaren jokoera klimatizidua geldiarazteko asmoz. Argazkia: Lundimatin

goak diren bestelako osagaiez ordezkaturatuta –tartean, altzairugintzako zaborrez-. Geroz eta gehiago hitz egiten da "karbono apaleko zementuaz". Terminoa hutsa dela dio *Le "béton vert", arme de la transition écologique, fait chou blanc* ("Beto berdea", trantsizio ekologikorako armaren porrota") artikulua egileak, hain zuzen, juridikoki ez duelako inolako definizio edo araudirik. Nahi bezala erabiltzen dabilta termino hori, jakinik gainera oso zaila dela ezagutzea ekoizle bakoitzaren produkzio prozesua. Matthias Devreton ikerlea aritu da alternatiba horien aztertzen eta ondorioak bildu ditu *Le vrai du faux béton bas carbone* ("Gezurrezko karbono apaleko betoiari buruzko egia") txostenean. Demagun, klinkerraren ordezkatzeko altzairugintzako zaborren inpaktu ekologikoa 0 dela diote industrialek. Alta, altzairugintzako nazioarteko erakunde World Steel Association-en datuei segi, ikerleak ondokoa baieztatzen du: "Ingurugiroaren alde doazen emaitza apartak plazaratzeko balio die horrek, baina beren benetako inpaktua hiru aldiz handiagoa da".

Klimaren erronkari aurre egiteko eta ekosistemen zaintza bermatzeko bai ala bai beharko litzatekeen ekoizpenaren guttizerik ez da ageri, eta gainera, "beto alternatiboak" ez doaz zabalduz, beraien ekoizpen-kostu altuagatik. Azkenean, logika kapitalista mugagabe batekin zabaltzen segitzen duelako. Denetan da, eta jakina, eraikuntza bat baino hobegorik ez da

Klimaren erronkari aurre egiteko eta ekosistemen zaintza bermatzeko bai ala bai beharko litzatekeen ekoizpenaren guttizerik ez da ageri; eta gainera "beto alternatiboak" ez doaz zabalduz

Barne Produktu Gordina emendatzeko. AHT ala bide berritze, bada atzealdean hazkundea sostengatzeko nahi ere.

Modernitatearen sinbolo, Bigarren Mundu Gerlaz geroztik hedaturiko urbanismoaren osagai nagusia dugu. Mendebaldetarren bide beretik doaz –normala– "modernizazioaren" eta "garapenaren" izenean Hegoko herriak ere. Asia eta Afrika buru belarri dira hormigoia loturik –denon artean lau aldiz biderkatu da zementuaren ekoizpena 1990eko hamarkadaz geroztik-. Pentsa, munduan gehienik baliaturiko materiala da –plastikoa eta burdina baino gehiago-. Iruditegi hegemonikoan herri bat moderno bihurtzen dutelako bere azpiegiturek eta eraikin handiek, eta pertsona bat



“Gure egiteko modua erabat gaitzetsia dago. Materialak ez ezik, teknikak ere aldatu behar dira. Askoz erradikalagoak izan behar gara”

P. Madec arkitektoa

ere "bide onetik" eta itxuraz "ekonomikoki ongi" doalako etxe pribatua eraikitzen duenean.

2020an plazaratu zuen filosofo alemandar Anselm Jappek *Béton, arme de construction massive du capitalisme* ("Betoia, kapitalismoaren eraikuntza masiborako arma") liburua interesgarria da kutsu kapitalistaz ohartzeko. Funtsean, ustelkeriaren kontra dabilen Transparency International GKEaren arabera hormigoiaaren sektorean dugu ustelkeriarik handiena kausitzen –armagintzan, meatzaritzan edo etxegintzan baino gehiago–.


Inpaktu ekologikoa kalkulatzeko orokorturiko neurgailuak –CO₂eq edo CO₂ baliokidea– ez ditu kontuan hartzen ekosisteman eragin kalteak eta baliabideen agortzeak. Urtero, uraren erabilpen industrialaren %10 eta 40.000 milioi tona harea eta obra hondakin behar ditu hormigoiak –harearen geroa bera da zalantzan gaur egun, neurritz kanpoko ustiapen horrengatik; batez beste, pertsona bakoitzeko 18 kilo dira

ETENIK GABEKO EKOIZPENA

Bigarren Mundu Gerlatik geroztik etengabeaz hazi da hormigoiaaren ekoizpena eta erabilpena. Nahiz eta klimatizida izan, norabide berean segitzen dute oraingoz: 2050erako 25 milioi kilometro bide berri eraikiko dira.

ustiatzen egunero Ademe egituraren arabera, nagusiki zementuarentzat-. Nola ez aipa behin betiko estalitako espazio berdeak eta horietatik desagerarrazitako faunak eta florak. Urtero, 695.000 kilometro bide eraikitzen dira munduan barna. Hemendik eta 2050 urtera bitartean 25 milioi kilometro bide berri eraikiko dira.

Hemen ez da trantsizio ekologikorik, betoia segitzen du indartsu, nahiz eta GIEC Klima Larrialdiari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen gomendioen aurka doan. Lurraren Altxamenduak taldeko "ekoterroristen" aholkuak entzun nahi ez dituenak entzun ditzala Philippe Madec arkitektoaren gomendioak: "Gure egiteko modua, joan den mendekoa dena, erabat gaitzetsia dago. Materialak ez ezik, teknikak ere aldatu behar dira. Duda-mudatan egotearekin gelditu behar gara, askoz erradikalago izan behar gara". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Anaís Córdoba-Páez

IRUDIAK, BORROKA, PLAZERA



DOLUA KOLEKTIBIZATZEN BADUZU, ALAITASUNA ERE KOLEKTIBIZATU BEHAR DUZU



Lagun baten laguna zelako ezagutu nuen Anaís Córdoba-Páez, eta sorpresen kaxa bat dela ohartu naiz pixkana-pixkana. Banekien bideoak egiten zituela, eta proiektio- eta musika-jartzaile gisa deskubritu nuen gero, gau oso batez dantza eginarazi baitzigun Feminxst Projection Party kolektiboaren eskutik. Ekologoa zela eta Galapagoetan lau urte eman zituela jakin bezain pronto, argi ikusi nuen elkarriketa bat egin nahi niola. Hona emaitza.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  HODEI TORRES

Bideografoa eta ekologia zara. Nola iritsi zinen bidegurutze horretara?

Kontrastez betetako herrialde batean jaio nintzen. Quitokoa naiz, Ekuadorreko hiri handi bat, baina inguruan mendiak eta natura ditu. Ordu eta erdiko tartean ekosistema batetik guztiz bestelako batera pasa zaitezke. Eta uste dut horrek eragina duela Ekuadorren bizi garen pertsonon gainean, munduaren ikuskerari dagokionez. Niri behintzat ez zait inoiz iruditu mundua gauza bakar bat denik. Adierazpen ugari leku bat dela uste dut.

Oker ez banaiz, Galapagoetan hasi zinen bideoak egiten.

Ekologia aplikatua eta Argazkilaritza ikasi nituen, eta Galapagoetan tesia egiten ari nintzela ekin nion bideoak egiteari. Hango inurri natiboekin lan egiten nuen, klima-aldaketak uhartedian izandako eragina aztertzen zuen proiektu baten barruan. Inurriak ez dira uste izaten dugun modukoak, espezie bakoitzak bere ekologia du. Orduan, inurrien identitatea ezagutzen baduzu, ekosistemaren egoera ere ezagutuko duzu; adierazle gisa balio dute. Eta han nengoen ni, inurriekin lanean eta era-

bateko bakardadean, eta halako batean zentro zientifiko batetik esan zidaten: aizu, zuk zinema ere egiten duzu, eta...

Eta geratu egin zinen.

Bai, tesia egitera joan eta lau urte geratu nintzen azkenean, ez da gutxi. Itsas Dortoka proiektuan lan egiten nuen, eta zientzia-dibulgazioko bideoak egiten nituen Galapagos Science Center-entzat. Zentro hori bi unibertsitatek bideratzen dute: San Francisco de Quitoko unibertsitateak –han egiten nituen ikasketak– eta Ipar Karolinako Chapel Hill-ek.



Anaís Córdova- Páez

QUITO, EKUADOR, 1989



Sortzaile, ekoizle eta kuradore gisa, generoa, ekologia, autonomia eta plazera lantzen ditu, begirada dekolonial batetik. Zaintza jartzen du erdigunean, filmen ekoizpeneko eta emanaldietako sorkuntza-prozesuei erronka eginez. Hegoalde globaleko artista eta kolektiboekin lankidetzan aritu da, eta *Lubricas* (2016) film laburra eta *Amazonia+Covid* (2020) seriea zuzendu ditu. Ekoizle gisa lan egiten du Zinegoak jaialdian, eta Kroaziako UNSEEN jaialdiko kuradore da. Lunádigas proiektuko kidea da: horretarako ahalmena izanda haurrik ez izatea erabaki duten pertsonen kolektiboa.

Han izandako esperientziaren harira zer nabarmenduko zenuke?

Orain eta hemen bizi dugun munduaz oso bestelakoa da. Galapagoetako alderdi soziala oso konplexua da. Batetik, eliza ebanjelikoek indar handia dute, eta, horregatik, emakume askok ezin dute praktarik jantzi, soilik gonak. Bestalde, talka handia dago espazio sozialaren eta kontserbaziora bideratzen den dirutzaren artean.

Eta jende asko ibiliko da joan-etorrian.

Jakintzaren estraktibismoa oso nabarmena da han. Atzerriko zientzialari asko joaten dira, datuak bildu, eta alde egiten dute berriro. AEBetakoak, Ingalaterrakoak, Alemaniakoak eta Australiakoak izaten dira bereziki, zientzia-turismo oso garestia da eta. Eta gero hango komunitateari ez zaio ezertxo ere geratzen.

Alderdi komunitario horri erreparatzen zioten egitasmoeetan aritu zinen zu.

Lehenik, ikerketa zientifikoei buruzko bideo dokumentalak gaztelaniaz ere egin genituen, ingelesaz aparte. Emanaldiak antolatzen genituen ostiralero kultur-zentro batean, filmak erakusteko. Bestalde, lagun batek eta biok igerriketa-ikastaroak ematen genizkien bertako emakumeei. Oso dibertigarria zen. Lagunak haien haurrak zaindu bitartean, nik igeri egiten erakusten nien.

Deigarria da igeri egiten ez jakitea.

Igeri egiteak gauza asko dakartza berekin, zeinak galarazita baitaude emakumeentzat sistema patriarkaletan. Zure gorputzarekin zaude, eta pazientzia behar da inori igeri egiten erakusteko. Han nengoela, hori zen nire aktibismoa, ezin bainuen esan feminista nintzenik, eta are gutxiago lesbiana.

Militantzia feminista oso garrantzitsua baita zure ibilbidean. Kontinentera itzultzean buru-belarri sartu zinen horretan.

Abortu legal, seguru eta doakoaren aldeko mugimenduan aritzen nintzen, despenalizazioaren alde, ez baita gauza bera legezapena eta despenalizazioa. Argentinan, 2018-2019an, legeztapena lortu zuten, baina abortuagatik emakumeak eta haien laguntzaileak kriminalizatzen segitzen badute, eta

abortua oraindik hitz txartzat jotzen bada, horrek despenalizazioarekin du zerikusia. Borroka ez da amaitzen, eta Espainiako Estatuan ere ez da amaitu.

Nola dago egoera Ekuadorren?

Duela bi urte despenalizatu zuten bortxaketa-kasuetan, baina oso gutxitan betetzen da. 2012tik ari ginen hori lortzeko borrokan. Beraz, duela urte batzuk, abortuan laguntzeko sare bat sortu genuen hainbaten artean. Latinoamerika osoan dago sare hori, eta gure estatu propioa garela esan nahi du. Laguntza feministaren ideia hortik sortu zen, abortuan lagundu dugunok sortu dugu kontzeptu politiko hori, baina, era berean, loturak ditu, baita ere, feminizidio-kasuetako eskubi-deen aldeko borrokaekin eta justizia feministaren irudikapenarekin.

Zer da zehazki laguntza feminista?

Ekuadorreko Ambato hirian Vanessa hil zuten, feminizidio-kasu bat izan zen, eta orduan Justicia para Vanessa sortu genuen. Vanessak 33-34 urte zituen erail zutenean, eta alaba bat zeukan, Rafa. Hil zuen gizona ez zen bere bikotekidea; ondorioz, hasieran haren erailketa ez zen hartu feminizidioaren tipologia juridikoaren barruan. Luze borrokatu ginen Vanessaren heriotza feminizidio gisa har zedin. Horren harira, gogoeta asko egin genuen: zer esan nahi duen laguntzeak, zer esan nahi duen egoteak, eta egotea ez dela ekintza asistentzialista bat, ez nago hemen pena ematen didazulako, sentipen judu-kristau bat sentitzen dudalako, ez dator hortik; kontua da, ez baldin banago, ez ditudala gauzak aldatuko, eta egongo naizela zeren nire ahizpa hiltzen badute ni ere hil nazakete bihar. Ez da bestearengatik egiten den borroka bat bakarrik, zure bizitzarengatik ere bada.

Zinemaren arlora etorrita, 2018an programatzaile moduan hasi zinen La Orquídea jaialdian; Ekuadorreko jaialdi handi bat da.

Latinoamerikan astinaldi handiak gertatu ziren, eta mugimendu feministak ere indar handia hartu zuen *VivasNosQueremos* eta *NiUnaMenos* mugimenduak tarteko. Horren harira, erregistratzeko eta ekoizteko premia zegoen, eta, beste kide batzuekin batera, martxei buruzko komunikazioaren ardura hartu nuen. Bideoak eta



performanceak egiten genituen, besteak beste. Ekoizpen kolektibo asko neuzkan, eta halako batean galdetu zidaten ea programatzaile aritu nahi nuen Ekuador hegoaldeko jaialdi batean. Noski, esan nuen. Genero-zinemaren saila programatu nuen, eta sekulakoa izan zen.

Kontatuko?

Chavela Vargasi buruzko dokumentala jarri genuen, eta ederra izan zen. Proiektzioa, berez, espazio ireki batean egitekoak ginen, baina Chavela lesbiana eta alkoholikoa zenez, udalerrriak zentsuratu egin zuen ekitaldia. Orduan, antzoki batean egin genuen, 300 pertsona sartzen ziren, eta gogoan dut gau hartan oso urduri nengoela; zera pentsatzen nuen: “Wow, filma jartzea lortu dugu, espero dut jendea etortzea”. Eta bat-batean aretoa goraino bete zen, 50-60 urte inguruko andreak etorri ziren, lagunartean, eta Chavelaren kantuak abesten zituzten denek. Ni negarrez, esanez sinestezina zela, eta une hartan gehiago egiten ari ginela LGBTIfobiaren aurka antolatutako hitzaldi guztietan baino.

Ordoren, EQUIS jaialdia antolatzen hasi zineten.

Orquídean ondo moldatu nintzenez, beste jaialdi batzuetatik deitu zidaten, eta horrela ezagutu nituen Equis jaialdiaren beste bi zuzendariak. Zinema feministako jaialdi bat da EQUIS, eta bosgarren edizioa du aurten. Aldi berean, bideoklipak egiten hasi nintzen rap-

ableslari feministekin eta lan asko egin nuen Amazoniako mugimendu indigenarekin. Ohartu nintzen gogoko nuela zinema sentsorialitatearen espazio gisa, sentsazioak eta narratibak esploratzeko leku gisa, non irudikatu ezin litezkeen gauzak sartzen baitira.

Eta hortik Euskal Herrira. 2021-2022 ikasturtean komisariotza-masterra egin zenuen Donostiako Elias Kerejeta zine-eskolan.

Etorri aurretik beste master bat egin nuen Ekuadorren, Simon Bolivar Unibertsitate Andetarrean, kultur ikaskei, arteei eta bisualitatei buruzkoa, ikuspegi dekolonialetik. Baina gauza praktikoago bat nahi nuen. Donostiako zine-eskolan jostailu guztiak dauzkate, nahi adina kamera eta laborategi, eta horrek esploratzeko aukera ematen dizu. Nik argazki analogikoa egin nuen, eta orain film analogikoak egin nahi nituen. Munduan ez dago toki asko halakorik egin dezakezunik. Eta kimikoen kontua ere hor dago. Latinoamerikan laborategi bakarra dago, Brasilen, bestela Europara bidali behar duzu materiala, digitalizatzeraz, eta oso garestia da. Beraz, hona iritsi nintzen, laborategira sartu nintzen esperimentatzeraz.



Sinestezina da. Eskuadroi horiek polizia gerarazten dute twerk eginez. Eta esango didate gorputza ez dela politikoa?”

Komunitate bat ere sortu duzue.

Lagun bikainak egin ditut eskolan, lankidetzan jarduteko gogoz egon gara denok, eta ez nahitaez eskolaren egituragatik, baizik eta jendea esperimentazio-nahi horretatik hurbiltzen zelako zinemara.

Beste batzuek ez dute horrela bizi, eta ondo dago, baina eskolako kide askok halako leku material batetik esploratu nahi dute zinema, eta ikuspegi hori oso ederra da, nahiz eta oso zaila den oraintxe bertan ikuspuntu horretatik aritzea. Izan ere, zinema leku elitista da, onartzen dut. Pribilegio handia dut, Donostiara master bat egitera etorri ahal izan dudalako.



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behe / Donostia
943 005 680 aholku.eus



Lehenik, master bat egiteagatik, bigarrenik Donostian, eta, azkenik, zinemaren arloan. Baina Ekuadorreran noan aldiro, eta materialen bat digitalizatu nahi badute, ekarri egiten dut.

Duela gutxi egon zara han, ezta?

Bai, gauza mordo bat ekarri nuen.

Eta grabatzen ere aritu zinen.

Bai, Super 8 batekin. Nire bizitzatik hitz egin nahi nuen, nitasun batetik, baina ez hainbeste autobiografikotik; unibertsaltasunarekin gurutzatzen diren tokiak nahi nituen, hala nola gentrifikazioa. Leku guztietan aurkitzen gaitu gentrifikazioak, modu batean edo bestean. Nire kasuan, haurtzaroko etxean aurkitu ninduen, amaren etxean, Quitoko kanpoaldean, non etxez betetzen ari baitzen

dena. Eta pentsatzen hasi nintzen hiriak landa-eremuan egin duen kolonizazio handiaren esanahiaz. Eta noiz hasiko garen hitz egiten landa-hiria eta hiri-landa harremanaz.

Beste proiekturik baduzu?

Eskolan egin nuena. Endometriosiari eta odolari buruzkoa da, odola hartuz subjektu neurri berean garrantzitsu gisa. Beti aipatzen da Kristoren odola edo minaren odola. Baina nik bere horretan hartu nahi nuen odola. Burdina, likidoa, egiturak.

Material gisa erabili zenuen?

Bai, zilarrezko plakak zituen film batean. Zilarrak eta burdinak erreakzio kimiko bat sortzen dute argiarekin, eta beste erreakzio-mota bat sortzen da orduan. Horrekin filmatu nuen, eta horrela jaio zen *Hemática*. Eskolan graduatzeko sortu nuen film hori. Nire lanen abiapuntuan beti agertzen da zalantza jartzearen eta zalantzan jarri ahal izatearen ideia, baina ez soilik edukiarri dagokionez, baita prozesuan ere; nire ustez prozesua da gakoa. Feminismoak ezer irakatsi badit, horixe irakatsi dit: prozesua garrantzitsuagoa dela emaitza baino.

Amaitu aurretik, postpornoaren inguruan galdetu nahi dizut. Arlo horretako film labur bat egina duzu, *Lubricas* izenekoa.

Denbora guztian hitz egiten genuen abortuari buruz, indarkeriari buruz, eta halako batean haustura bat gertatu zen: ok, noiz hitz egingo dugu plazerari eta pozari buruz? Orduan, elkartu egin ginen batzuk, eta postpornoari buruz hitz egiten hasi ginen; plazererako irudiak sortu nahi genituen, ordezkatzen gaituztenak eta desira pizten digutenak. Komunitate batek bestelako porno bat egin nahi zuen. Ez genuen pornoa debe-

katuko, azken batean, abortatzeko esku-bideaz hitz egiten genuen, askatasun-erabaki- eta autonomia-jarrerara gisa, beraz erabaki genuen ez genuela ezer debekatuko. Kontrakoa: geure pornoa egingo dugu, ordezkatzen gaituena, era askotako gorputzekin eta plazera erakutsiz.

Plazera eta gorputza politikotzat hartzea da, azken batean.

Uste dut puntu hori oso presente dagoe la espazio latinoamerikarrean: borroka eta festa gertu daude. Festa eta dantza, guretzat, borrokatzearekin lotuta daude, politikarekin lotuta. Emakumeak espazio publikoaz jabetzea egintza politikoa da berez. Zer ari da gertatzen belaunaldi berriekin? Hau da, nire amaren belaunaldikoak ez ziren espazio publikora irteten nire belaunaldikoak irten diren moduan. Latinoamerikako manifestazio askotan *twerk*-eskuadroiak antolatzen dituzte poliziaren aurka [dantza-mota bat da *twerk*-a, eta, ipurdia astintzean datza].

Barkatu horrela esaten badizut, baina, *twerk*-eskuadroiak, a zer fantasia.

Sinestezina da. Eskuadro horiek polizia gerarazten dute *twerk* eginez. Eta esango didate gorputza ez dela politikoa? Euskal Herrian ezereen falta sumatzen badut, horixe da. Manifestazioetan... inork ez du ezer esaten. Baina bueno, ondo dago, beste kultura bat da. Kontua da plazaren eta festaren lekua aldarrikatzen hasi ginela. Dolua kolektibizatzen baduzu, alaitasuna ere kolektibizatu behar duzu. Zeren, hori egin ezean, gorputza nekatu egiten da, eta gorputz batek, nekatuta badago eta ez bada pozik sentitzen, ez du erresistentziarik egingo patriarkatuaren aurka. ●



AEKren
UDAKO
IBILTARIAK
UZTAIL eta ABUZTUAN

Euskal Herria mendiz mendi
Helburu dugu Euskal Herria oinez zeharkatu eta 15 egunez euskaraz mintzatzea.

- UZTAILA: 15etik 29ra
- ABUZTUA: 07/29tik - 08/13ra

IZENA-EMATEKO: aek.eus/ibiltaria
Azken eguna, ekainaren 26a

735€

praktikatu
mintzapraktika
egitasmoak **aek**



Klima eta energia legea



MIKEL OTERO GABIRONDO
LEGEBILTZARKIDEA

Jaurlearitzak trantsizio energetikoan eta larrialdi klimatikoaren aurkako borrokan aitzindaritzak aldarrikatzen badu ere, ekintzak ez datoz bat hitzekin. Indarrean dauden klima eta energia estrategiak (Klima 2050 eta 3E2030) Parisko Akordio klimatikoa baino lehen idatzitakoak dira eta helburuak erabat zaharkituta dituzte. Agindutako energiaren arloko lurralde plangintza ez dago indarrean eta nekez onartuko da legealdia amaitu aurretik. Eta Klima Lege baten lehendabiziko (huts egindako) saiakera 2009-2012 legealdian etorri bazen ere, oraindik ez dago ezer onartuta. Beraz, Lakuak larrialdi klimatiko egoeraren deklarazioa 2019. urtean onartu, onartu zuen, baina planifikazio basamortu baten aurrean gaude. Ondorioz, ekologikoki erabakigarriak izaten ari diren urte hauetara marko estrategiko egokirik gabe heldu gara.

Oraingoan, Jaurlearitzak aldaketa klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren lege proiektua aurkeztu berri du. Legeen izapidetze malkartsua ezagututa, ikusteko dago zer amaituko den azkarrago; legearen izapidetzea ala legealdia bera. Porrot galanta litzate-

Ez dago energia fosilak alboratzeko bideoririk, ez Energiaren Euskal Erakundearen norabidea zuzentzeko asmorik, ezta berriztagarrietan herritarren jabegoa sustatzeko grinik ere

ke. Epeen inguruan kezkek badaude ere, edukiak aztertuta kezkek areagotzen dira. Zehaztugabeko 2050erako neutraltasun klimatiko konpromisoaz aparte, proiektuak ez du erdibideko helburu zehatzik, ez eraginkortasunean, ez CO2 isurietan, ez energia be-

rriztagarrien hedapenean, ez ezertan.

Ez dago energia fosilak alboratzeko bideoririk, ez Energiaren Euskal Erakundearen norabidea zuzentzeko asmorik, ezta berriztagarrietan herritarren jabegoa sustatzeko grinik edo aurrekontuetan begirada klimatiko-energetikoa txertatzeko konpromisorik ere. Dena da derrigortasunik gabeko bolondreskeria. Helbururik gabe eta derrigortasunik gabe, ez dago zehapenik legean. Zertarako behar? Laburbilduz, aurkeztutakoari *lege* deitzea handi samar geratzen zaio. Astindu ederra beharko du proiektu honek, ez aitzindari izateko, baizik eta beste lege batzuetara hurbiltzeko ere, Nafarroakoa, kasu, non gutxienez helburuak eta bitartekoak ezartzen diren.

Eta ez daukagu denbora galtzeko. Duela gutxi, 2009an identifikatu ziren muga planetarioen errebisio zientifikoa egin duen zientzialari talde mardulak argi hitz egin du. Bederatzi muga planetarioetatik zazpi gainditu ditugu, eta biodibertsitatearen eta klimaren egoera kritikoa da. Bitxiki, bi parametro horiei buelta emateko gako nagusienetarikoa trantsizio energetikoa egitea da, fosilak alboratuta eta berriztagarriak hedatuta. Hel diezaio-gun behingoz erronkari. ●

Erreakzioa



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Udal hauteskundeak pasa eta aste-betera, badirudi prest gaudela aztertzeke hauteskunde berri hauek utzi dituzten emaitzak, datozen lau urteetan udalerrien politika instituzionala markatuko dutenak. Azterketa posible guztietatik kezagarriena, zalantzarik gabe, Herrialde Katalanetan eskuin muturrak izan duen gorakada da.

Vox eskuin muturreko alderdiak 395 zinegotzi lortu ditu Kataluniako, Valentziako eta Balearretako herri eta hirietan. Kataluniako autonomia erki-degoan 3 zinegotzi izatetik 124 izatera igaro dira, 114.413 boto irabazi dituzte 2019ko hauteskundeekin alderatuta, eta botoen %5,01 lortu dituzte. A priori sinets dezakegu hori guztia *procès*-aren erreakzioaren eta independentismoaren gorakadaren ondorio besterik ez dela. Hala ere, uste dut irakurketa oker eta autokonplazentea dela.

Vox lau hiriburuetakos osoko bilkuretan sartu da: hiru zinegotzi Tarragonan, bi Bartzelonan eta Lleidan, eta bat Gironan. 20.000 biztanletik gorako Kataluniako gainerako 63 udalerrietan, berrogei udaletan lortu dute ordezkari, batez ere Llobregat Beherea, Vallès Occidental eta Tarragonès industria-eremuak.

Datu horien arabera, Santiago Abascal alderdiak ordezkari lortu du aurkeztu den Kataluniako 133 udaletatik 76tan. Herrialdean 947 udalerridaudela kontuan hartuta, Voxen eskuin muturra horien %8an bakarrik egon-

Eskuin muturra hazten ari da hauteskundeetan parte hartzetik kanpo utzitako auzokideen aurkako gorroto diskurtsoei esker

go da, baina zifra hori ez da gutxietsi behar, kontuan hartuta udalerririk horiek biztanleriaren %65 biltzen dutela, hain zuzen ere.

Bi gai dira funtsezkoak emaitzak ulertzen saiatzeko eta lehenbailehen horiek lehenagotzen hasteko. Lehena da Voxek boto gehienak lortu dituela errenta baxuko auzoetan. Hala ere, ez da ahaztu behar emaitza oso onak lortzen jarraitzen duela oso errenta altuak dituzten auzoetan ere, Bartzelonako auzoetan, esaterako. Eta zera galdetzen diogu geure buruari: nola lortu dezake klase popularren botoen zati handi bat, señoeritoek zuzentzen duten eta klase popularren interesen aurkako neurri ekonomikoak defendatzen dituen alderdi batek?

Bi faktorek azaltzen dute. Lehenik, auzo horietako arazoak konpontzeko auzokideek erantzun eskasa izan dute azken hamarkadetakoko gobernuen alde-

tik. Hau da, Vox zigor eta antisistema boto bihurtu da jende askorentzat. Bigarrenik, abstentzio orokor handia izan da –bereziki leku horietan–, Katalunian %44,44koa izan baita –2019an baino bederatzi puntu gehiago–, eta leku askotan ordezkari lortzea erraztu dio.

Bigarren gaia da okupen, inoren kargura ez dauden adin txikikoen eta komunitate migratzaileen aurkako diskurtsoa. Horri esker, ezkutatu egin ditu jendartearen aurkako proposamenak, eta babesa irabazi du baztertuenak elkarren aurka jarrita. Ultraeskuinak botoen %11 baino gehiago lortu dituen Kataluniako zortzi udalerrietatik bostetan, migratzaileak herritarren %12,5 eta %35 artean dira. Ondorioa argia da: eskuin muturra hazten ari da hauteskundeetan parte hartzetik kanpo utzitako auzokideen aurkako gorroto diskurtsoei esker.

Amaitzeko, bi egitate nabarmendu behar dira: Ciudadanos 220 zinegotzi eta 155.808 boto galdu ditu aurreko udal hauteskundeekin konparatuta; hamar zinegotzi bakarrik lortuta, bazterreko alderdia izatera pasatu da, eta Voxek etekina ateratu dio horri. Azkenik, eta nire ustez kezagarriena dena da, bere diskurtsoa gero eta txertatuago dagoela boto-emaile gazteen artean. Beraz, egoera ikusita, argi dago estrategia poliedrikoak behar direla eskuin muturraren erreakzioa geldiarazteko, beranduegi izan baino lehen. ●

Digitalizazioaz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Gogoratzen dut nire bizitza Internet aurretik. Gaur egun ez nuke jakingo zelan itzuli horra. Ez nuke nahi. Gogoratzen ditut ikusten genizkion demokratizaziorako aukerak. *Kultura pop*-ularra ere *cyberpunk* mintzo zitzaigun. Sareen sarea gure ortzi-muga zabaltzeko eta munduaren askapenerako tresna izan zitekeen edo, behintzat, hala zioen Hacker Manifestuak.

Informatika eta teknologia ez dira honezkero txip eta ordenagailu kontua, gure bizimoduen errotiko eraldaketa baino.

Atomizazio sozialeranzko joera lehenagotik ere badator, baina “*connecting people*” zioen iragarkitik hona gero eta deskonektatuago gaude. Gero eta jende gehiagori beldur edo lotsa ematen dio beste pertsona batekin aurrez aurre hitz egiteko edo, besterik gabe, telefono deiak egiteak. Adinkeriaz akusatu ninduen batek, horretaz hausnartu beharko genukeela esandakoan. *Enpin!*

Pantailek ezin dute ordezkatu aurrez aurreko harremana. Enpatia pizten duten ispilu-neuronen lana eten eta oztopatzen dute. Ingurua bera disruptiboa ei da. Animaliak, antza, bata bestearen aurrean egon behar gara enpatia lantzeko.

Enpresa teknologiko handiak jaun eta jabe dira. Mundu mailako enpresarik ba-

liotsuenak GAFAM akronimopean daude. Google, Amazon, Facebook, Apple eta Microsoft dira, besteak beste. Ez begiratu hauteskunde emaitzetara; munduan norik agintzen duen jakiteko, burtsetara egin behar da.

Ez dago *digitalizazio* berba aipatu ez duen politikaririk, zertaz ari diren ondo jakin barik. Bien bitartean, administrazioetako webguneak informazio zaharkituz usteltzen dira. Ez da hori digitalizazioaren helburua, ez da informazioa helaraztea edo herritarrei bizitza erraztea, kontrakoa baino. Administrazioak gero eta herritar gehiago aparte uzten dituen burokrazia modu berria topatu du bertan.

Baina hortik harago, digitalizazioa gainbehera atzeratu nahi duen kapitalismoaren azken txanpa da.

Promesa handia da, kostuak merketzen (lanpostuak suntsitzen) jarraitzeko: errobotizazioa, lan harremanak deuseztatzen dituzten aplikazio eta plataformak, algoritmoek zuzendutako erantzun automatizatuak...

Negozio habi berria ere bada, meatzaritza, industria, komertzioa, garraioa eta zaborren negozioak elikatzen ditu eta. Kontsumismo, esplotazio eta estraktibismoa berdez margoturik.

Baina digitalizazioa edozein koloreta-

koa izan liteke, berdea izan ezik: mineralen sukarra, lurraldeen deuseztatena, birziklatu ezin diren zabor metak... eta energia gastua. Bai, hodeia ez da zerbait immateriala, elkarri konektatutako zerbitzariak baizik. Interneteko trafikoak sorrarazten dituen negutegi efektodun gasak hegalaldi zibil guztien bestekoak dira; AEBetako datu-zentroen hozte sistemek egunean 1.700 milioi litro ur gasatzen dituzte.

Azkenik, herritarren kontrolerako tresna ezin hobekoak dira. Baina, adi, kontrol zuzenaz lor daitekeen gain, etengabean zelaturik gaudela jakite hutsak jendarte osoa konformismora eta sumisiora darama.

Hau ez da XXI. mendeko ludita bihurtzera deia, pantailen atzean jokatzen den guztiaz hausnartzera eta pentsamendu kritikoa lantzera baino.

Erresilientzia –modako beste berba bat– harreman, laguntza eta elkarlan humanoan dago, ez smartphone batean. Horixe da ehundu beharreko sare soziala. Besteak egoa elikatzeko tresnak baino ez dira, ego hori puzten duten *like* eta *hate*-en dopamina txuteetara ahalik eta denbora gehien engantxaturik egon gaitezen. Ni-a baino ez da existitzen bertan, ni-a eta Platonen kobazuloko itzalak pantailan proiektaturik. ●

Ekainean t(r)inko!



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA
IRAKASLEA

Agertu dira ekaineko trinkoko ikasleak klasera. Maloteenak harroxko, baziloi...; beste batzuk lotsati, nagitsu... Euskaltegikook ia urtero joaten gara libre duten hilabete hori nolabait betetzera, C1 lortzea aitzakia hartuta. Gure helburua ez da horrenbeste titulua lor dezaten, ez bada euren euskararekiko harremanari beste ikuspegi bat eskaintzea. Lehenengo galdera egin diegu: zer esaten dizute irakasleek zuen euskarari buruz? “Ez dugula egiten, eta egiten dugunean txarto egiten dugula”. Bikain hasi gara.

Ez dute txarto egiten! Askok lortuko dute C1, nahiz eta oraindik ez duten behar. Komunikazio gaitasuna badute, baina hanka sartzeko beldurrez aritzen dira, eta sarritan ez zaizkie hitzak eta esamoldeak ahoratzen, baina hori erreferente eta ohitura faltaren ondorioa da.

Aurkezpenak egiteko jokia egin dugu: lau bost galdera elkarri binaka jarrita, eta kidearena denen aurrean kontatu, ea gezurra harrapatzen dugun. Txikitan nolakoak ziren, nolakoak diren orain eta zeintzuk diren euren ametsak, batetik, eta euskararekin izandako esperientzia positibo bat eta negatibo bat, bestetik. Esperientzia positibo bi baino ez dituzte kontatu: behin oporretan, urrun zeudela, Orioko familia bat entzun zuten euskaraz eta egundoko poza eman ziela batek; behin euskaraz hitz eginez, eta hain

zuzen egiteagatik, ligatu eta bere lehen musua horrela jaso zuela beste batek. Tamalez, bigarrenaren kasuan horixe zen sartutako gezurra. Esperientzia negatibo guztiak eskolarekin egon dira lotuta. Zenbait irakasle ondo baloratuak dira, baina aditz taulen hooliganak gorroto dituzte.

Ikastaro batean esan berri digute ikerketa baten arabera ikasleek txarren baloratzen dutena euskara ikasgaia dela: zorrotzegiak irakasleak, aspergarrria ikasgaia. Jakina, gure aditzaren paradigma ez da nolana hikoia, eta urteak eman ditzakegu, jira eta bira, nakizuke, dakizuke...

“E! Maisu, dakizu ke aurten ez dugu txangorik egin?”. Euskara lau hormen artean geratzen da batzuentzat, euskal sareekiko lotura hutsaren hurrena... Gure milenialek, eta zer esanik ez Z belaunaldikoek, ez dute euskara ikasi nahi, euskaraz aritzen ikasi eta ohitu nahi dute. Ez dute herren ibili nahi, ez dute gutxiago sentitu nahi...

Gure ikasleak ez dira arnagune batean bizi, eztulgune batean baizik. Baina barrutik aldatzen ari direnen indarra dute, eta gai dira herriko errealitate soziolinguistikoa aldatzeko ere. Hitzun legitimo sentitu besterik ez dute behar, hitzun motibatu eta legitimo.

Asteburuan Gatibu ikusten egon dira ia guztiak eta pozago etorri dira goizean. ●

Biolentzia obstetrikoa



**EVA PEREZ-PONS
ANDRADE**

Lesbiana naizen galdetu didate askotan ginekologoaren kontsultan. Ez dakit kontsultara doan edozeini egiten dioten galdera hori edo pazientearen itxuraren arabera egiten den. Hasieran, ilusioarekin hartzen nuen; *oh, ikusgarritasuna!* Baina denak dauka prezio bat, eta baiezkoaren aurrean, arreta diferentea izan daiteke, hete-roak ez garenon osasunaren kaltetan.

Lesbianen sexuari dagokionez, errealitateari egokitzen ez zaion iruditegi oso bat egon daiteke ginekologoaren buruan, eta iruditegi horrek gure osasuna baldintzatu dezake. Adibidez, 25 urterekin, umetoki lepoko

minbizi-froga egiteko gutuna heldu zitzaidanean, gutuna irakurri, egingo nuela erabaki eta froga egiteko hitzordua hartu nuen. Kontsultara heltzean, galdera: *lesbiana zara?* Baietz erantzun nuen. Berehala, froga ez egiteko aukera eman zidan emaginak, *lesbiana izanda minbizia izateko probabilitatea txikiagoa delako*. Ez zidan galde-tu norekin edo zenbatekin oheratzen nintzen, zer egiten nuen, babesari buruzko ezer... identitatea izan zen nire osasuna neurtzeko izan zuen adierazle bakarra, gaixotasunak identitatearen bitartez transmitituko balira bezala, eta ez praktikaren bitartez. ●

Urrup eta klik



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Duela lau urte, Donostiako udal gobernuaren eratu berriaren, txoko honetan salatu nuen alkatearen hizkuntza politika erdalzaleak goia jo zuela. Hasiera benetan tamalgarria izan zen, hilabete eskasean atzera urrats ugari pilatu baitzuen: euskaraz mintzatzeko gai ez zen arduradun politiko bat aukeratu zuen euskaraz jardutekoa zen sail baterako; euskaraz gaituta ez zeuden udaltzainak eta mugikortasuneko agente mordoa kontratatu zuen (gerora, urte urte errepikatu zen “salbuespena”); toldozainen jantzi berrietan “toldero” idatzi zuen; gaztelania hutsez errotulaturuta agertu ziren udako ikuskizunetako kartelariak eta udal faroletan ekimen pribatu batek kokatutako panelak...

Horiek horrela, aldarrikatu nuen Donostiako Udalak beste kementan erakutsi beharko zuela arauak ezartzeko eta euskararen normalizazioaren abiadura bizkortzeko, abian zen euskara plana XX. mendekoa baino XXI. mendekoa izan zedin.

Tira, joan dira lau urte, eta haiekin batera euskal kultura are zokorago baz-

Saiatu gara
ohartarazpenak
proposamenekin
laguntzen, baina
agintaldi amaierara
arte ez diogu
ikusi alkate ustez
euskaltzaleari bat
egiteko asmorik

tertu zuen pandemia bat ere. Agertu zen sator zulo bat, baita osin sakon eta ilun bat ere Santa Klara uhartean, eta handik behera joan ziren euskarazko antzerkiarentzat izan zitezkeen diruak, baita euskarazko hedabideentzako publizitateak ere, komun zulutik behera ur zikinak joaten diren bezala. Bihurritu zuten araudia etxeak egiteko, kosta ahala kosta (jakina), arnagunea itota, baita udal sail oso baten ardura duen

zuzendari euskaraz ez gaitua kontratatzeke ere, edota markesinetako publizitate erdal elebakarrak hamar urteko iraungitze epea izan dezan. Eta pintxokeria eztarriko zuloan trahatu zaigun bezala geratu izan zaigu hitza ahoan hainbat ostatu *noentiendotarretan*...

Saiatu gara ohartarazpenak proposamenekin laguntzen, baina agintaldi amaierara arte, hauteskunde giroan, ez diogu ikusi alkate ustez euskaltzaleari bat egiteko asmorik. Aitatzeara ere ez dute merezi udaleko neofrankistek egindako saiakerek euskaldunon hizkuntza eskubideak gutxiesteko, edo bai, ez baitirudi kasualitatea besaulkiei eutsi izana, epaitegiak euskararen aurrebidea oztopatzen hasi diren honetan.

Epealdi berean, hamar puntu egin du gora lanposturako beharrezkoa duten hizkuntza eskakizuna eskuratu duten udaleko langileen kopuruak (%83), eta euskararen erabilera mailari eutsi omen diogu Donostiako kaleetan, ezagutzak hazten jarraitzeaz batera; bada, botila erdi bete-hustuari urrup egin beharko, eta klik. ●

ekologikoa, lurrari lotutako ekoizpena



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasuna
Landa Garapenerako Europako
Nekazaritza Funtza
European Union's Rural Development



Gorputza landu, burua zainduz

Tresna bat da kirola. Nola, noiz eta zertarako erabiltzen den, ona ala txarra izan daiteke. Osasuntsua edo arriskutsua. Lasaigarria edo itogarria. Mesede egin diezaioke haurren garapen integralari, baina oztopo ere bihur daiteke prozesu horretan. Gozamen iturri eta bizibide dute eliteko atletek; ordea, buruhauste ugari eragin diezaieke, lesioen, presioaren eta norbere barne mundua ulertzeko baliabide faltaren ondorioz. Horrez guztiaz luze eta zabal hausnartu dute goi-mailako hainbat kirolarik Villabonako Gurea antzokian, Behar Zana pilota elkarteak bere 77. urteurrenaren harira antolatutako duen hitzaldian.

 EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

Fisikoki sasoi betean egotea da errendimenduko kirolarien helburua. Gorputza dute lanabes, eta berau lantzeko entrenamendu eta elikadura plan zorrotzak jarraitzen dituzte. Maiz, ordea, bazter uzten dute atalik garrantzitsuenak: burua. Pertsona bakoitzak mataza emozional eta psikologiko konplexu bat du bere baitan, eta korapiloa erabat nahastu daiteke eliteko kirolaren exijentziaren ondorioz. Bada, buru-oreka galduta, oso zaila da partidak, lasterketak edo lehiaketak irabaztea; eta guztiz ezinezkoa kirolaz gozatzea.

Azkenaldian, osasun mentala saihestu beharreko gaien tiraderatik atera dute puntako kirolari askok, eta mahai gainean jarri zuen Behar Zana pilota elkarteak joan zen ekainaren 1ean. Euskal Herriko kiroleko zazpi erreferente elkartu zituen mahaiaren bueltan:

Iker Irribarria eta Axier Arteaga pilotari profesional ohiak, Karmele Gisasola ‘Zelai III.a’ herri kirolaria, Hassan Ait Chau mendiko korrikalaria, Garbiñe Etxeberria Realeko kirol zuzendaria, Mikel Nieve txirrindulari ohia eta Iraitx Arrospe atleta. EHUko irakasle eta ikerlari Oidui Usabiaga ere batu zitzaizen, kirol hastapenean espezializazio goiztiarrak dituen arriskuez mintzatzeko. Jon Eskudero kazetaria aritu zen aurkezle eta moderatzaile lanetan.

Presiopean jarduten dute sarri kirolariek, eta horri buruzkoak izan ziren hizlarien lehen hausnarketak. Irribarriak 19 urterekin lortu zuen buruz-buruko lehen txapela, eta hortik aurrera, estu hartu zuen presioak. “Txapela oso goiz irabazi nuen, eta oraindik ez nuen tresnarik nire burua lasai edukitzeko. Ekonomikoki eta kirol arloan garaipen oso ona izan zen, baina egunerokota-

sunean, zama izugarria nabaritu nuen”. Haren inguruan sortutako espektatibek ito egin zuten Irribarria. Gisasola ere “txapelak irabazitakoan” hasi zen presioa nabaritzen. Zentzu horretan, ez dio mesederik egin Jose Antonio Gisasola ‘Zelai’ harrijasotzailearen alaba izateak. “Hasieran ez nuen erakutsi beharrik noren alaba naizen, baina hori aldatuz joan zen irabazi ahala. Presioa sentiarazten dit aitak: irabazi beharra dagoe-la esaten dit. Lehiaketak bizitzeko bi modu ezberdin ditugu”.

Kirol zuzendari gisa “erabaki zailak” hartu behar izaten ditu Garbiñe Etxeberriak. Ez du samurra behar, adibidez, jokalariei irteerako atea irekitzeak. “Batzuetan jokalaria asko atsekabetzen dira taldean jarraituko ez dutela esaten diezunean, eta gogorra da, negoziaketa batean ados jartzen ez zarenean bezala”. “Buruko min gutxiago” izan zuen



MARI SOL RAMIREZ / FOKU

TXAPELAREN ZAMA. "Txapela oso goiz irabazi nuen, eta oraindik ez nuen tresnarik nire burua lasai edukitzeko", aitortu zuen Iker Irribarria pilotariak Villabonako hitzaldian. "Ekonomikoki eta kirol arloan garaipen oso ona izan zen, baina egunerokotasunean, zama izugarria nabaritu nuen". Argazkian, Gaitegiz Arteagako pilotalekuan, 2021eko irailean.

futbolari garaietan. Ez omen zuen hertsura psikologikorik sentitu. Hassan Ait Chaouk eta Mikel Nievek ere egonkortasun mentalari eutsi ahal izan diote. Kanpotik jasotako presioaren ordez, norberak bere buruari jarritakoa nabaritu izan dute. "Ni oso lasaia naiz, baina lehiakide batzuek ezin dute urduritasuna kudeatu. Egoerak gainezka egiten die batzuetan: irteeran agertu, baina alde egiten dute gero", azaldu zuen Ait Chaouk.

Axier Arteaga, adibidez, guztiz urduri aritu zen kantxan bere ibilbidea gainbehera hasi zenean. "Finalik garrantzitsuenak oso lasai jokatu nituen, baina behera egiten hastean, sekulako presioa nabaritu nuen. Ez nintzen nitaz espero zena betetzen ari". Bakoitzaren izaerak baldintzatzen omen du, hein handi batean, presioaren hautematea. "Egoera beraren aurrean, kirolari bat

motibatu egin daiteke, eta beste bat nahigabetu edo urduritu". Presioa kudeatu ahal izateko, identifikatu egin behar da lehenik, eta Arteagari kosta egin zitzaion arazoaz ohartzea. "Ez dakizu zergatik sentitzen zaren horrela. Are gehiago, ez zara kontziente presio horretaz guztiaz". Antzeko esperientzia izan du Iraitz Arrospidek. "Emaitza onak lortzean, ilusioz eta gogotsu sentitzen nintzen. Baina gauza asko zeuden ezkutuan. Lesio bat izan nuen gero, eta presio handia izan arren, ez nintzen horren jakitun".

BELDURRA ARAKATU ETA ONARTU

Zer egin, hura izan: norbere identitatea bakoitzaren lanbidearekin nahastu daiteke, eta joera hori are nabariagoa da goreneko kirolarien artean. Hala laburtu zuen Irribarriak: "Kirolariak 24

orduz dira kirolari". Funtsean, direna, beren jardunak eta, are, lortzen dituzten emaitzek definitzen dutela sinesteko arriskua dute. Horregatik, porrotak amildegiaren ertzean jar ditzake. Baliotsu sentitzeko, irabazi beharra dago ezinbestean. Izu laborria eragiten du kaskarkeriak. Beldurra da, hain justu, kirolariak presio gisa nabaritzen dutena, Arteagak azaldu zuenez. "Arreta gaizki atera daitekeen horretan jartzen duzu, eta pentsatzen hasten zara, ea zer gertatuko den galtzen baduzu, baliotsua izango zaren edo ez, zer pentsatuko duten besteek...". Balioespina kanpotik jasotzeko beharrak are gehiago okertzen du egoera. "Beldur handia eragin dezake etxekoentzat baliotsu izango ez zarela edo enpresak gutxietsi egingo zaituela pentsatzeak".

Irribarriaren hitzetan, "bakarrik gelditzeko sentimendu bat" izaten da huts



FOTORUNNER.EUS



SKYRUNNER WORLD SERIES



KORNER.EUS

“Emitza onak lortzean, ilusioz eta gogotsu sentitzen nintzen. Baina gauza asko zeuden ezkutuan. Lesio bat izan nuen gero, eta presio handia izan arren, ez nintzen horren jakitun”
Iraitz Arrospide

“Seme-alabak etxera iritsi, eta partidaren zer egin duten galdetzen diegu, zer moduz pasa duten galdetu beharrean. Egiten duzuna egiten duzula, gozatzeak izan beharko luke lehentasuna”
Hassan Ait Chaou

“Ez irabaztea aukera bat dela ikasi eta barneratu behar dugu. Partidak berdindu eta galdu ere egin daitezke, eta txapelketak talde bakarrak irabazten ditu”
Garbiñe Etxeberria

egin ondotik. “Horrek ikaritzen ninduen gehien, partidak edo porrotak berak baino gehiago”. Gisasola, berriz, “sufritzeko beldurrez” izaten da plaza irten aurretik. “Badakit sufritu egin behar dudala, eta nik ez dut sufritu nahi. Bizpahiru minutuko probak izaten dira, baina hasi arte, ezezkoan egoten naiz. Gero, beldur izaten zara ea harria jausiko zaizun. Mamu askori egin behar diozu aurre”. Kate ikusezin horiek apurtzeko, gakoa “galtzen ikastea” dela uste du herri kirolariak. Arteagak,

bere aldetik, introspekzioa proposatu zuen irtenbide bezala. “Lehenik, beldurra aztertu behar duzu. Behin jatorriaz jabetuta, beldurra onartzea da hurrengo urratsa”. Bat dator Irribarria: “Norberak beldurra onartzen duenean, beldur horrek indar gehiena galdu egiten du”.

KIROL MOTAREN ERAGINA

Kirol batzuetan dena ez da zuri edo beltz, irabazi edo galdu. Txirrindularitzan, kasurako, badira aintzat hartzen

diren beste aldagai batzuk, emitza soilez harago. Ondo daki hori Mikel Nievek. “Orokorrean, zure lana ontzat jotzen da ihesaldian edo lanean fin aritu bazara. Eta hamargarren iristea emitza ona izan daiteke. Gainera, egun txarra izan arren, biharamunean beste aukera bat duzu, eta hortaz, gauzak lasaiago har ditzakezu”. Irribarriarentzat, hedatuago egon beharko luke ikusmolde horrek. “Pilotan, partida txar bat egin eta kanpora zoaz”. Atletismoan, berriz, “denboraren baitan



IDOIA ZABALETA / FOKU



“Lanean egunero zortzi orduz aritzen garen bezala, kirolak ere bere arriskuak ditu. Eta nabarmena da osasun mentaleko arazoak izaten direla kirol espezializazioa goiztiarra denean”

Oidui Usabiaga

“Badakit plazan sufritu egin behar dudala, eta nik ez dut sufritu nahi. Ezezkoan izaten naiz hasi arte. Gero, beldur izaten zara ea harria jausiko zaizun. Mamu askori egin behar diezu aurre”

Karmele Gisasola

“Ni bederatzirterekin hasi nintzen ziklismoan, baina beste kirol askorekin bateratu nuen. Adin bat arte, denetarik egiten eta kirolaz gozatzen erakutsi behar zaie umeei”

Mikel Nieve

egoteak” dakar zailtasuna, Arrospidek azaldu zuenez. “Erlojuari begira gaude beti. Lasterketa bakoitza erlojupeko baten modukoa da, eta egunik onena izan behar duzu zure markarik onena lortzeko. Gainera, bakarkako kirola da, eta ezin zara ezkutatu. Lanketa mental handia eskatzen du”.

Ikertzaile ikuspegitik, Oidui Usabiagari iruditzen zaio kirol guztiak daukela presioaren eraginak kutsaturik. “Lehiaketarekin dago lotua hori. Harelere, desberdintasunak daude talde

kirolen eta bakarkako kirolen artean. Biolentziak eta liskarrak modu ezberdinean bizi dira batean eta bestean. Baina lehiaketa kirola bada, beti dago presioa”. Eta zer esanik ez, oinekin eta baloi baten jiran jokatzeko bada. Izan ere, emaitzen menpeko kirolak badago, hori futbola da. “Beste mundu bat da hau”, esan zuen Etxeberriak. “Pentsa Mourinhok zer eredu eman zuen aurrerakoan, zilarrezko domina kolkotik kendu, eta zaleei oparitu zienean. Ez irabaztea aukera bat dela ikasi eta bar-

neratu behar dugu. Partidak berdindu eta galdu ere egin daitezke, eta txapelketak talde bakarrak irabazten ditu”.

Ait Chauren ustez, balio kontua da. “Beste batzuk zu baino hobeto badaude, eta emaitza hobea lortu badute, zoriondu egin behar dituzu, eta kito. Lehiakorrak gara, baina balio batzuk ezin dira inoiz galdu: adibidez, errespetua eta laguntasuna”. Burua altxatu, eta begirada norbere kolkotik eta emaitzetatik aldentzea eskatzen du horrek.



GARFE



GORKA RUBIO / FOKU

“Euskal gizartean oraindik eta traba gehiago daude osasun mentala normalizatzeko, oso tradizionala delako. Eta hemengo kirolak euskal tradizioaren parte direnez, are atzeratuago daude”

Axier Arteaga

HOBE BERANDU, GOIZEGI BAINO

Gizartean nola, hala gertatzen da kirolean ere: lehiakortasun suntsikorrek balio eraikitzaileak deuseztatzen ditu. “Sistema kapitalista honetan, gora iritsi eta arrakasta izatea da balio duen gauza bakarra. Ahalegintzea ez da aski. Kirolari eta pertsona gisa hobetzea ere ez”, esan zuen Arteagak. Ikuskera hori umetatik txertatzen zaie kirolariei. Hala iruditzen zaio Ait Chauri: “Seme-alabak etxera iritsi, eta partidari zer egin duten galdetzen diegu, zer moduz pasa

“Ez dugu guretzako batere denborarik hartzen. Nik mediatu egiten dut, dezente, eta irakurri ere bai. Hobetzen eta bizitzari zentzua bilatzen saiatzen naiz”

Iker Irribarria

duten galdetu beharrean. Egiten duzuna egiten duzula, gozatzeak izan beharko luke lehentasuna”. Hausnarketa horri ñabardura gehitu zion Usabiagak: “Zer da, baina, gozamina haurrentzat? Hori zehaztea da kontua. Ondoren, zertan ari diren eta zer nahi duten ikusi behar dute. Baina hori beranduago etorri beharko litzateke. Umetan esaten badizu kirol jakin batean espezializatu nahi duela, nik ez nioke utziko”.

Haurrak kirol bakarrera bideratzeak dakartzan ondorioak ikertu ditu Usabia-

gak, eta joera hori kaltegarritzat jotzen duen ebidentzia ugari topatu. Haren esanetan, kirol jakin batean denbora asko igarotzean, testuingurua lehiakorra bihurtzen da ezinbestean, espektatibei bide emanez, eta horrek guztiak “izugarritzko estres egoerak” sortzen ditu umeen artean. “Hamahiru urtez azpiko adin tartea ari gara aztertzen. Errendimendura iristeko espezializazioa behar da, eta espezializazioak beti ekartzen ditu arrisku gehiago. Lanean egunero zortzi orduz aritzeak bere arriskuak dituen bezala, kirolean ere antzera gertatzen da. Eta nabarmena da osasun mentaleko arazoak izaten direla kirol espezializazioa goiztiarra denean”.

Unea iritsita, ordea, kirol bat edo beste aukeratu behar da. Uste horretakoa da Etxeberria. “Momentua iritsita, apustu bat egin behar da. Eta hortik aurrera, ahalik eta gehien hobetu, kontuan izanik jende guztiak ez duela gozatzen kirolean, edo ez dela ona”. Usabiagaren erantzuna: “Bai, norbaitek errendimendurako bidea egin nahi badu, eskubide osoa du. Kontua da noiz hasten zaren, eta zenbat entrenatuz. Nazioartean, pediatrek ere esaten dute: hamahiru urtez azpitik espezializatorik ez”. Gizarteak, baina, geroz eta kirolari gazteagoak nahi ditu elitean. “Zortzi urteko seme-alabak fabrikari lanean jartzen ez ditugun bezala, ezin ditugu jarri astean hogeitaz kirol berbera egiten. Izan ere, arrisku itzela dago sekula gaudituko ez diren lesioak izateko”.

Alternatiba gisa, “espezializazio berrantiarra” proposatzen du Usabiagak, osasunerako ez ezik, errendimendurako ere onuragarria delako. “Maila berbera lor dezakezu kirol batean nerabezaroaren ondoren espezializatzen bazara. Gainera, lesioak izateko arriskua gutxitzen duzu. Hortaz, hobe da beranduago hastea”. Ondo iruditzen zaio Nieveri. “Ni bederatzi urterekin hasi nintzen ziklismoan, baina beste kirol askorekin bateratu nuen. Adin bat arte, denetarik egiten eta kirolaz gozatzeko erakutsi behar zaie umeei”. Zentzu horretan, Gipuzkoako “multikirol eredu” goratu zuen Etxeberriak. “Kirol bat baino gehiago egitera behartzen dituzte haurrak, eta hori babes handia da, guraso askori gustatzen ez zaien arren”. “Guraso gehienak zentzudunak dira, baina ez denak, eta instituzioek gainetik egon behar dute marra gorriak jartzerakoan”, gaineratu zuen EHUKo ikertzaileak.



ENAUT AGIRREBENGOA

HAMAIKA BIZIPEN. Jon Eskudero kazetaria moderatzaile zela (argazkian eskuinean), zortzi lagun bildu zituen Behar Zana pilota taldeak Villabonan antolatutako hitzaldiak. Ezker-eskuin: Iker Iribarria pilotaria, Mikel Nieve txirrundularia, Karmele Gisasola 'Zelai III' harri jasotzaile eta pentatleta, Axier Arteaga coach eta pilotaria, Iraitz Arrospe maratoilaria, Realeko entrenatzaile eta kirol zuzendari Garbiñe Etxeberria, Hassan Ait Chauou mendi korrikalaria, eta EHUKo Gorputz eta Hezkuntza saileko irakasle Oidui Usabiaga.

“HERENTZIA EMOZIONALA” OZTOPO

Etxeberriarentzat, “prozesuaz gozatzeara” da garrantzitsua, eta horretarako, “baliabide guztiak” eskaintzen dituzte Realean. “Hezkuntzako irakasleak dituzte, eta psikologoak ere bai, talde kohesioa, errespetua eta emozioen kontrola lantzeko. Hori ezin da toki guztietan aurkitu”. Herri kiroltan, “geroz eta jarrera irekiagoa” somatzen du Gisasolak arlo mentalari dagokionez. “Normalagoa da orain “psikologora noa” entzutea. Etxean lege zaharrek dira. Esaten dute beren garaian guztia zela gogorragoa, eta aurrera egin zutela. Ordea, nik laguntza behar badut, behar dut, eta kito”.

Iribarriaren arabera, pilotan oraindik ez da normalizatu buru osasunaz hitz egitea. “Laguntza eskatu nuen nik, eta jendaurrean onartzen lehenengoetako bat izan nintzen. Jendeak arraroa banintz bezala begiratzaren zidan. Etxean ere bai”. Gurasoen “herentzia emozionalaz” mintzatu zen pilotari ohia. “Beste garai batzuk ziren, gizartea beste modu batean ze-

goen antolatuta, eta dena exijentzia zen. Soka hori eten beharra dago”. Atzera begiratuta, “gauzak oso ezberdin” egingo zituen. “Hasteko, lehenago eskatuko nuen laguntza”. Barrura begiratzeko gonbita egin zuen. “Ez dugu guretzako batere denborarik hartzen. Nik mediatu egiten dut, dezente, eta irakurri ere bai. Hobetzen eta bizitzari zentzua bilatzen saiatzen naiz”. “Lagunarte on bat edukitzeak ere asko laguntzen du”, gaineratu zuen Gisasolak.

Arteaga coach lanetan dabil gaur egun, eta irakurketa kritikoa egin zuen hark ere. “Gizartean geroz eta gehiago hitz egiten da osasun mentalaz; hein batean, kirolari esker. Alabaina, kirolari askok ez dute esan nahi coach batekin ari direla lan egiten. Euskal gizartean oraindik eta traba gehiago daude, oso tradizionala delako. Eta hemengo kirolak euskal tradizioaren parte direnez, are atzeratuago daude”.

Baikorrage mintzatu zen Etxeberria. “Pauso handia egin dugu halako gai bat hona ekartzen. Zerbait aldatzen ari den seinale da. Naturaltasunez jorratu behar dugu”. ●



mitxelena
MEKANIZATUAK

Ezlagi industrialdea 21, HERNANI | 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus | www.talleresmitxelena.eus

ESTHER MARTINEZ GALLASTEGI

“Haurrek ezinbestean apurtuko dituzte mugak, bizitzaren inguruan ikasten joateko”



Galderaz betetako gurasoa joan da hitzordura: nola eragiten diete haurrei gure espektatibek? Nola gestionatu gatazkak, mugak eta gure beldurrak? Ama eta aitaren rola aldatu al dira urteotan? Gaizki egiten ari garen sentimendurik al dugu? Nola lortu gure seme-alabak zoriontsu izan daitezen? Gako interesgarri ugari jaso ditugu bueltan, Esther Martinez Gallastegi Argi-begi bitartekaritza elkarteko kidearen eskutik.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Zenbateraino bihurtzen ditugu umeak “produktu”, jaio aurretik planifikaturiko eta aurreikusitako bizitza batzuen menpe?

Guraso izatea erabakitzen dugunean, hasten gara seme-alaben bizitza planifikatzen, guraso bakoitzak dituen irizpideen arabera, eta bai, ibilbide bat markatzen goaz, kontzienteago edo inkontzienteago. Izan daiteke guraso batzuek lortu ez duten hori seme-alabek lortzea nahi izatea, izan daiteke gurasoek lortutakoa seme-alabek errepikatzea nahi izatea, baina baita ere seme-alabek erabakietan parte hartzea erabakitzea: adibidez, bultzatu dezaket nire haurra kirola egitera, sine-tsita balio bat duela, baina utziko diot aukeratzen berak nahi duen kirola.

“ ”

Haurrek behar dute ulertuak sentitu. Horretarako begirada jaitsi behar dugu, ez dituztelako gauzak bizi guk bizi ditugun moduan

Eta gurasoon espektatiba eta desirek zenbateraino baldintzatzen dute seme-alaben bizitza? Zer egin, espektatiba horiekin?

Guk nola ikusten ditugun, izugarrizko eragina du haiengan. Haurrekin hitz egiten dugunean ikusten dugu espektatibak oso altuak direnean, adibidez, beren burua presionatzen dutela espektatibara iristeko, eta etiketekin dago lotuta: seme-alabari etiketa jartzen badiot oso azkarra eta listoa dela, eta berak ez badu bere burua hala ikusten, autoestimuan eragina izango du. Berdin espektatiba ez bada positiboa: alferra dela errepikatzen badiot, jokaera alferra izango du, beretzat garrantzitsuena delako nik bera ikustea. Nola bilatu oreka espektatibekin? Diren



FEMINIST SOUL
FREEDOM IS NO FEAR



BOO...

BOO...

BOO...

modukoak onartzuz, benetan zein abilezia eta hobetzeko zein gabezia dituzten ikusten jakin behar dugu, eta onartzen, diren modukoak onartzea delako gurengandik behar dutena.

Haurra ingelesera, igeriketara eta abar luze batera apuntatzen dugu. Beti ondokoarekin konparatzen gabiltzan gizarte honetan, seme-alaba atzean geratuko den beldurra bizi gaitu?

Baina denak ezberdinak garelako jabetu behar gara, bestela lehia horretan eroriko gara. Halere, egoera bakoitza ezberdina izan daiteke: badaude familiak ekonomia-gatik ezin dituztenak seme-alabak halako jardunetan apuntatu; beste guraso batzuk aldiz, hain daude lanpetuta eta estresatuta, eskolaz kanpoko jardunak behar dituztela umeak nonbait egon daitezela... Kontuak kontu, Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrez ari garelarik, galdetzen badiozu arratsaldean zer egin nahi duen, erantzungo dizu “zurekin egon”, behar dutena hori delako.

Bestalde, halako ekintzak oso baliagarriak izan daitezke, adibidez eskolako taldean onartua izateko zailtasuna badu, aukera zabaltzen diolako beste espazio batzuetan onartua izateko eta harremanak eta lagunak izateko. Motibazioa funtsezkoa da: eskolaz kanpoko jarduera horretan haurra motibatuta ez badago, traba bat jartzen ari gara. Duela gutxi nerabe batek esan zidan bere amak nahi zuela kirol jakin batean jarraitzea, Euskal Herriko Txapelketa irabazteko, baina nerabeak ez zuen halakorik nahi.

Seme-alabentzat nahi duguna galdetuz gero, erantzun errepikatuenetakoa izango da “zoriontasuna”, baina ezberdin ulertzen dugu zoriontasuna? Edo zoriontasun hori lortzeko egin beharrekoa?

Familia guztiak ezberdinak gara, ezberdinak dira ditugun balio, ohitura eta jasotako heziketa ereduak, eta zoriontasuna ulertzeko moduak ere bai. Baina familia guztiok ditugu bi giltza zoriontasun horretara iristeko: batetik, autoestimua, haurra onartzea eta maitatzea den moduan, zeren haur horrek goizean etxeko atetik ateratzen denean oinarri sendo bat izango du dituen erronkei aurre egiteko, baita onartua sentitzen ez den espazioetan ere, haurra ez delako onartua izango espazio guztietan. Eta bestetik, autonomia, haurrei uztea erabakiak hartzen eta akatsak egiten, gu gaudelako akonpainamendu hori egiteko.

“”

Haurrek ikasten dute ikusten dutena, ez esaten dieguna

Hain justu, haurrak babestu nahi horretan, kostatzen zaigu autonomia ematea?

Kostatzen zaigu haurrak frustratuta ikustea, beraiek gaizki pasatzen dutenean guri barruraino sartzen zaigulako. Baina ez dago ikasteko beste modurik: frustrazioaren aurrean baliabideak garatzeko, frustratu egin behar dute eta ezetza entzun behar dute.

Mugak jarri behar dira orduan, baina zein muga jarri eta muga non jarri, ezberdin ikusten dugu batzuek eta besteek.

Eskolan, lantokian, etxean... jartzen diren muga eta arauak elkarbizitzara bideratutakoak dira, ditugun harremanetan denok errespetuz jokatzeko. Haurrek ere mugak behar dituzte, segurtasun bat garatzeko, autorregulatzen ikasteko. Etxean jartzen dugu araua, baina nahi duguna da modu horretan jokatzeko etxean ez dagoenean; etxean errespetuz jokatzeko araua jartzen dugu, kalean ere besteekin errespetuz joka dezan, eta jakin dezan baita ere besteek berarekin errespetuz jokatu behar dutela.

Haurrak mugak apurtuko ditu, naturalki, eta guk esan behar diogu “ez, hortik ez, hau da bidea”.

“”

Gurasoek den moduan onartu eta maitatzen duten haurrak etxeko atetik ateratzen denean oinarri sendo bat izango du dituen erronkei aurre egiteko, baita onartua sentitzen ez den espazioetan ere

Mugak apurtzea eta soka tenkatzea ohikoa baita...

Haurrak ez dakielako nondik jo behar duen. Kontuan izan behar dugu heldu baten burmuina ez dela haurrarena bezalako; guk erraz ikusten ditugu hainbat gauza, baina beraiek ez dituzte hala ikusten, eta mugak ezinbestean apurtuko dituzte, bizitzaren inguruan ikasten joateko, eta ondorioak dituztela jabetzeko. Mugak jartzen ditugunean inportantea baita ondorioak zehazten joatea: zuk erabaki nola jokatu duzun, jokaera honekin ondorio hau izango duzu, beste jokaera honekin beste ondorio hau. Bizitzan gertatzen da: gure jokabideek ondorioak dituzte.

Seme-alaben gatazka eta arazoak gestionatzeko, pazientzia behar izaten da. Batzuetan, eguneroko erritmo azkarrean, “gestio espresa” edo gatazka saihestea da bide errazena.

Gatazkek familia guztiak dituzte eta naturalak dira, esan nahi du familiako kide bat ez dela ondo sentitzen eta zerbaite aldatu behar dela pertsona edo taldea ondo sentitzeko. Gatazka garrantzitsua da eta beti berdin gaudela esaten badugu, gatazka saihesten ari bagara, ez gara ondo egiten ari. Konturatzen banaiz etxean egoera bat dagoela egunerokoan tentsioa sortzen duena, gelditu eta aztertu egin behar dut zer gertatzen den, eta ondoren familiako kide guztien inplikazioa eskatuko dut egoerari aurre egiteko. Zerbaitek ez badu funtzionatzen, ezin diot seme-alabari eskatu aldatzeko, nik jokatu behar dut beste modu batera, errepikatzen den gatazka hori gainditzeko.

Eta aipatzen duzun une horien inguruan, urduritasun edo tentsio momentu bat dagoenean, premisa bat izan behar dugu buruan: bera zenbat eta urduria-go, ni orduan eta lasaigo. Gu eredu gara eta haurrek ikasten dute ikusten dutena, ez esaten dieguna. Ez da ezer pasatzen une batean urduritu banaiz, baina identifikatzen badut nire jarrerarekin tentsio gehiago sortzen ari naizela, gogoeta egin eta aldatu egin behar dut nire jokamoldea.

Ezinean, zenbateraino jotzen dugu pantailletara?

Gurasoen aldetik kontzientzia eta kezka handiagoa sumatzen ari gara gai honetan, eta afera kudeatzeko beste modu batzuk ikusten ari gara pixkanaka, nahiz eta denok erori garen noizbait gatazka bat kudeatzeko pantailara jotze horretan. Pantaillekin gertatzen da gatazkei ez diegula aurre egiten: gertatzen ari dena gelditu

egiten da momentu horretan, baina aurrago berriz errepikatuko da. Gainera, pantailaren aurrean jartzen garenean, ez dago emozioen kudeaketarik, ez dago hausnarketarako espaziorik, eta hala ikusten ari gara: pantailaren aurrean zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta zailtasun handiagoak ditu haurrak emozioak kudeatzeko, haserrearen kontrola eta abar. Eta hori haurrek eurek esaten digute.

Elkarrizketa hau prestatzen ari nintzela, indarkeria ikusezinari buruzko artikulu bat ikusi dut: umeari garrasi egitea, mehatxu egitea... indarkeria ikusezina dela. Denoi ihes egin digu garrasi edo mehatxuren batek, halere.

Ikusezina ez, ikusten den indarkeria da, eta diozun moduan, pertsonak gara eta momenturen batean denoi gertatu zaigu, baina gertatzen denean barkamena eskatu behar diogu haurrari, berak ikus dezan ez dela jokabide egokia. Oihu egiten da urruti dagoenak entzun diezazun; baliabide hori erabiltzen badut haurra ondoan dudanean, bere gaintetik jartzeko ari naiz erabiltzen. Garrasi batek ihes egitea normala da, identifikatzea da inportantea: identifikatzen baduzu hori gertatu zaizula, aldatzeko aukera daukazu, hurrengoan modu horretan ez jokatzeko. Haurraren berdin: momenturen batean halako jokaera baldin badu, ez da ezer pasatzen, barkamena eskatu dezala eta beste modu batera jokatzeko saiatu dadila hurrengoan; ikusten dutena ikasten dute, esan dugu lehen.

Zenbat guraso ezagutu dituzu erruduntasun sentimenduekin, uste dutelako ez direla ongi egiten ari?

Guraso eskolak ditugunean, nahiko ohiko sentimendua izaten da, eta gaintetik kendu behar dugun sentimendua da, ez digulako laguntzen aurrera egiten; onartu behar dugu ez gara perfektuak, akatsak egiten ditugula eta ez dela ezer gertatzen, bizitzak aukerak ematen dizkigu hobeto jokatzeke eta bide hori hartu behar dugu. Halakoetan gehien laguntzen duena da guraso eskolen gisako hausnarketarako espazioak sortzea eta bakoitzak bere bizipenak elkarbanatzea, konturatzeko zarelako ondoko etxean ere antzera sentitzen direla, eta gurasook, elkar komunikatuz eta elkarri lagunduz, pisu handia kendu dezakegu gaintetik.



"Amak jarraitzen du izaten planifikatzen duena, zer dagoen afaltzeko, soinketa dagoenean labordan zer sartu, udan zein ekintza egin eta nola antolatu... eta hortik gainezka egitearen sentazioa".

Guraso prototipo asko sailkatzen dituzte adituek (autoritarioak, permisiboegiak, gehiegi babesten dutenak...) eta era bateko edo besteko guraso izateak haurraren ondorioak zerrendatzen dizkizute. Aldiz, duela gutxi irakurri dut, "zu ez zara zure seme-alabari gertatuko zaionaren erantzule erabatekoa". Lasaia hartu behar genuke?

Gurasoon eragina egon badago, baina kontuz ibili behar dugu, sarritan epaitu egiten dugulako: seme-alabaren gelakideak zerbait desegokia egin, eta joera dugu ume horren familia epaitzeko, eta batzuetan

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu

SIGACUS

📞 943 453 588 · www.sigacus.com

familia hori ahal duen guztia egiten ari da haurrak jokaera hori izan ez dezan. Azken finean, nire seme-alabak ere desegoki jokatu du uneren batean, ikasten ari direlako, besterik gabe, eta hori onartu egin behar dugu.

Genero ikuspegitik, ama eta aitaren rola asko aldatu al da urteotan?

Aldatu, aldatu da, eta guraso eskoletan, esaterako, aita batzuek parte hartzen dute, aitak ikusten ditugu beste funtzio batzuk hartzen. Baina guraso eskoletan gehiengo oraindik amak dira, heztearen funtzioa amek hartzen dute eta oraindik ere sentsazioa dute gainezka daudela, nekatuta, estresatuta, bikotekidearen babesik gabe... Esan dezakegu, funtzio banaketa argiagoa dagoen arren, amak jarraitzen duela izaten planifikatzen duena, zer dagoen afaltzeko, soinketa dagoenean laboradoran zer sartu, udan zein ekintza egin eta nola antolatu... eta hortik gainezka egitearen sentsazioa, planifikazio horrek sekulako denbora eskatzen baitu.

Bi gurasodun familietan, bikote harremana zenbateraino uzten dugu bazter, ume bat jaiotzen denean? Eta geure burua? Neurri batean galtzen al dugu gure identitatea, umearenarekin bat eginda?

Norberaren identitatea aukeratua denean, aberastu egiten da: naiz profesionala, lagun ona, emakumea... eta orain ama ere banaiz. Egia da haurrak txikiak direnean eskatzen duen energia eta denbora kudeatzea kosta egiten zaigula batzuetan, eta garbi izan behar dugu beste pertsona bat zaintzeko geure burua zaindu behar dugula: geure buruarekin egoteko espazioak gordetzea oso-oso beharrezkoa da, gero haurarekin gaudenean behar bezala disfrutatzeko. Denbora hartzea da gakoa, eta denbora gutxi dugunean ere, denbora tartetxo bat izatea gure buruarentzat, nahi dugun hori egiteko, ezer ez egitea baldin bada ere.

“Poli ona, poli gaiztoa” figurak nahiko ohikoak izan ohi dira etxe batzuetan (“aitari esango diot”).

Eredu hori ez da bideragarria. Gainera, gazteak ginenean, lagunartean egon ohi zen baten bat esaten zuena “niri ez didate etxera bueltatzeko ordurik jartzen”, eta penatuta esaten zuen, hazten goazen heinean mugak eta arauak eskertzen ditugulako, behar ditugulako. Kontua da muga eta arau horiek errespetuz ezartzea, ez hainbeste dikotomia horretan erortzea:

“”

Gatazka garrantzitsua da eta beti berdin gaudela esaten badugu, gatazka saihesten ari bagara, ez gara ondo egiten ari

“ona” eta “gaiztoa”. Etxean gauden helduen artean irizpide amankomun batzuk zehaztu beharko ditugu, horrelako hautemateak saihesteko eta seme-alabak ideia berdinak jaso ditzan. Gerta daiteke aitaren eta amaren balioak ezberdinak izatea eta adibidez aitak nahi izatea haragirik ez jatea eta horrek talka sortzea bikotean; bada, ezin badugu amankomunean irizpiderik zehaztu, funtzioak banatu ditzakegu: zuk elikadurarena eta nik eskolarena, eta abar. Baina horretaz guztiaz hitz egin behar dugu, horrelako egoerak saihesteko.

Emango dizkiguzu aholku batzuk, gure haurrak hezteko?

Bost gako emango dizkizut.

Bat, seme-alabek sentitu behar dute hurbil gaituztela, barneratuta izan behar dute gertatzen dena gertatzen dela gu hor egongo garela, haiei laguntzeko, jokaera desegokia dutenean ere. Eta hori hala dela entzun behar digute: “Behar duzunean, hemen nago”.

Bi, komunikazioa lantzea, bi norabidekoa, diskurtsoak eta aholkuak ematen trebeak garelako baina kostatzen zaigu entzutea. Haur batek sentitzen

“”

Guraso eskolen gisako hausnarketa espazioak sortzea eta bakoitzak bere bizipenak elkarbanatzea lagungarria da, konturatzen zarelako ondoko etxean ere antzera sentitzen direla

duenean entzun zaiola, esaten ari gatazkaio “zu garrantzitsua zara niretzat, esaten duzuna garrantzitsua da”.

Hiru, ulermena. Haurrak asko kezkatzen dira, “ez didazue ulertzen”, eta behar dute ulertuak sentitu. Horretarako begirada jaitsi behar dugu, ez dituztelako gauzak bizi guk bizi ditugun moduan, baina haiekin enpatizatu behar dugu. Eta berriz ere, entzun behar digute: “Saiatzen ari naiz zuri ulertzen”, edo “ulertzen zaitut, nahiz eta esaten duzunarekin ados ez na goen”.

Lau, konfiantza. Jakin behar dute gure konfiantza ez dutela galduko, beste harreman batzuetan agian lagunaren edo besteren baten konfiantza irabazi egin beharko dutela, baina nirea ez, nik sinesten dudalako gai dela. Gure konfiantza hori oso beharrezkoa dute.

Eta azkenik, baldintzarik gabeko maitasuna. Hau ere komunikazio kontua da: diren moduan maite ditugula jakin behar dute, onartuak sentitu daitezen, elkarrizketan zehar aipatu dudanez.

Seme-alabenganako baldintzarik gabeko maitasun hori izan badugu gurasook, beharbada ez dugu egoki transmititzen.


Hori da, denok maite ditugulako gure seme-alabak pila bat, baina ari al gara eta nola ari gara hori transmititzen? Umorea ere oso garrantzitsua da. Eguneroko gurrpil estresatuan, etxera iritsi eta “hau jaso”, “beste hau ez egin”... ari-tu gaitezke, momentu atsegin bat sortu beharrean, denok gustura egoteko. Umorea ona nagusi den momentu atseginetarako leku egitea gakoa da, errazago joango da dena. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinarako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Noe vs Nyaminyami



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Rhodesia, 1956. Kariba presa eraikitzeke lanak abiatu ziren, Zambezi ibaiaren arroan. Handik lau urtera amaitu zuten 128 metro luze eta 579 metro zabal den zementuzko hesia eta urtegia urez betetzen hasi ziren. 1963an iritsi zen ura maila gorenera; Zambeziren lautada alubiala urak estali zuen, eta hura etorkizunerako jauzi itxaropentsua izan zen proiektua bultzatu zutenentzat.

Baina proiektua abian jarri zutenak ez ziren bertakoak, europarrak baizik. Ipar eta Hego Rhodesia –egungo Zambia eta Zimbabwe– britainiarren esku zegoen eta haiena izan zen ekimena. Rhodesiarrak presa Kariban egitearen aurka zeuden, baina kanpoko “aditu” talde batek erabaki zuen kokapena, haiek kontuan hartu gabe. Harresia eta zentral elektrikoa eraikitzeke lanak Impresit italiar kontsultorioari esleitu zizkieten, eta proiektua Andre Coyne ingeniari frantziarrak diseinatu zuen.

Karibak “tranpa” esan nahi du batonga hizkuntzan, haitzarteak zeuzkan arriskuen seinale, eta bertakoek Nyaminyami ibaiaren jainkoa hortxe bizi zela uste zuten; eta presa eraikitzean jainko sugea haserretuko zela ere bai. Urtegia bete zutenean milaka eta milaka animaliek beren habitata utzi behar izan zuten. Asko irtenbiderik gabe geratu ziren, uharteetan edo zuhaitzetan bakartuta. Eta orduan “salbatzaile txuriek” *Noe Operazioa* jarri zuten abian, bertakoekin sinesmenei entzungor, salbamenduarentzat izen kristaua aukeratuta. 7.000 animalia inguru erreskatatu zituzten, eta kasu deigarrienen berri lau haizetara zabaldu;



MATRARCH AFRICA

esaterako, errinzero bat salbatzeko, 7 orduko jazarpen arriskutsuaren ondoren, baltsa batean 12 milia egin behar izan zituztenekoa. Baina zuhaitzetan bakartuta geratu ziren eta hosto guztiak jan ondoren goseak hil zituen ehunka tximinoez ez zuen inork hitz egin. Animalia espezierik kalte-tuenetakoa gizakia izan zen. 50.000 pertsonak baino gehiagok utzi behar izan zituzten bizitokiak eta labore lur emankorrak, gehienak Batonga tribukoak. Argindarra, eskolak, ospitaleak... promestu zizkieten arren, gogoz kontra alde egin behar izan zuten. Lur garaiago eta hareatsuagoak landu behar izan zituzten, sail alubial emanko-

rren truke. Beren bizimodua galdu zuten, eskatu ez zituzten ustezko onuren truke.

60 urte joan dira urtegia bete zutenetik eta, egun, Karibako urtegia ustiatzen duen Zesco (Zambia Electricity Supply Company) enpresak Gwenbe-Tonga ekimena jarri du abian presak eragindako ingurumen eta gizarte kalteak arintzeko asmoz. Iraganean ez bezala, bertako komunitateek parte hartuko omen dute proiektuaren fase guztietan. Eta Nyaminyami jainkoaren eskultura bat ere badago Kariban (irudian), bere bizitokia suntsitu zuen hormatzarrari begira. Ki- nuok nahikoak al dira Batonga tribuaren eta ibaiaren jainkoaren haserrea itzaltzeko? ●

Depilatzea, higiena eta estatusa

Worxeterren (Ingalaterra) egindako indusketa lanetan, erromatar garaiko depilatzeke 50 pintza baino gehiago aurkitu dituzte berriki. Adituak ez dira harritu, erromatarrek gorputz osoko biloa kentzeko ohitura baitzuten.

Hasieran higiena kontua omen zena Inperio osora zabaldu zen, kli-

ma hotzagoetara, beste ñabardura batzuekin. Gorputzeko ileak banan-banan kentzea lan mingarria eta luzea zen eta, ahal zutenek, esklaboek laguntzaz egiten zuten. Gainera, depilatuta egoteak “barbaroengandik” bereizten omen zituen erromatar hiritar zintzoak. ●



ENGLISH HERITAGE

BIZI BARATZEA PROIEKTUA

esku gehiago eta erreminta zorroztu berriak lur emankorra lantzeko

Ekainaren 8an Hernanin elkartu dira ARGIAren Bizi Baratzea proiektuan parte hartzen duten 30 kide. 2014an hasi zen guztia ustekabeko liburu batekin, eta geroztik izan duen bilakaera errepasatu dute topaketa honetan, eta azken be-

rritasunak aurkeztu dituzte: kolaboratzaile sare indartua, bizibaratzea.eus webgune berritua, 9.900 hartzailerengana iristen den buletin berritua, "Egonarria" saioa eta Telegrameko Bizi Baratzea kanala.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Bizi Baratzea proiektua egiten duten kide kopura handitzea eta hauek sortzen dituzten edukiak modu eraginkorragoan zabaltzea izan dira 2023an emandako jauziak. Berrietasun horiek aurkezteko, proiektuko kide diren 30 pertsona elkartu dira Hernanin: bertako alkate Xabier Lertxundi eta Ingurumen zinegotzi Mattin Aldaiaren ahotik ezagutu dute lehenik "Hernani burujabe" proiektua; eta ondoren, Bizi Baratzeari buruzko bizi-penak eta gogoetak partekatu dituzte. Ezagutu nahi, 2014an piztu zen proiektu honen berrietasunak?

Dagoeneko konturatuta egongo zara, astekari honetako Bizi Baratzea saila hiru orrikoa dela martxo bukatetik: bertan idazten duten kolaboratzaile sarea zabaldu dugu, bakoitzak sektore zehatz baten berri eman dezan. Hauek dira gaur egun sail horretan

Berrikuntza hauek egin ditu Bizi Baratzeak: kolaboratzaile sarea zabaldu, webgunea eta buletina berritu, "Egonarria" saioa martxan jarri eta Telegram kanala

idazten duten 14 kolaboratzaileak eta bakoitzak lantzen dituen gaiak: Jakoba Errekondo landareez, Garazi Zabaleta elikadura burujabetza esperientziez, Garbiñe Larrea sendabelarrez, Mattin Jauregi eta Inaxio Arin erlezaintzaz, Josebe Blanco artzaintzaz, Aintzira Oñe-

derra eta Goiuri Alberdi elikadura sistemako ikerketez, Marta Barba haziez, Iñigo Arruabarrena baso jangarriez eta permakulturaz, eta boskote hau ekofeminismoaz kolektiboki: Marta Barba, Amanda Dias, Junkal Arruti, Leticia Urretabizkaia eta Mirene Begiristain.

Egile hauek eta ARGIAko kazetariak lurrari eta elikadurari buruz idazten dituzten edukiak zabaltzeko, erramin-ta hauek garatu ditugu aurtengoan:

BIZIBARATZEA.EUS WEBGUNE BERRITUA

2016tik martxan den bizibaratzea.eus webgunea berritu dugu, bi funtzio nagusi hauek hobeto betetzeko: batetik, landareei buruzko informazio praktikoa erraz aurkitzea eta bestetik, ingurumen gaiei buruzko albisteen berri izatea.



DANI BLANCO

Bizi Baratzea proiektuko kideak

Argazkian, Hernanin ekainaren 8an egin zen aurkezpenean elkartu ziren Bizi Baratzea proiektuko kideak:

Jakoba Errekondo, Garbiñe Larrea, Garazi Zabaleta, Josebe Blanco, Mirene Begiristain, Marta Barba, Aintzira Oñederra, Inaxio Arin, Iñaki Sanz Azkue, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Mattin Jauregi, Eli Pagola, Kelo Arribas, Marc Badal, Markel Arriolabengoa, Iñaki Etxebeste, Antton Olariaga, Eñaut Aiartzaguena, Maider Zubikarai, Leire Ibarretxe, Xabier Lertxundi, Mattin Aldaia, Leire Artola, Karlos Olasolo, Bego Zuza, Aloña Soraluze, Asier Iturralde, Eneritz Arzallus, Dani Blanco, Maitane Gartziandia eta Estitxu Eizagirre.

Webgunearen eskuineko aldean, erabilera praktikorako informazioa eskaintzen da. Garaiaren arabera aste horretan egiteko lanak, ilargiaren informazioa, baratzean egiteko oinarriak, baratzean hasteko urratsak, hilabete bakoitzean zer erein edo lan-datu eta jaso...

Webgunearen ezkerreko aldean ikusiko ditugu lurrari eta ingurumen gaietarako buruzko artikulak, albisteak eta bideoak. Aktualitateari jarraipena egin nahi diotzen hemen du iturri eder bat.

Euskal Herriko ekimenen berri izateko leihora ere bada webgunea: Euskal Herri osoko agenda bakarra elikatzen du, eragileek aukera dute beraien albisteak ikusgai egon daitezen, eta Garazi Zabaletak astero bere artikuluan azaltzen duen Euskal Herriko esperientzia ere webgunean dago irakurgai.

9.900 HARTZAILE DITUEN BULETINA

2016tik martxan den buletina ere berri du Bizi Baratzeak. Astelehenero goizeko 8:00etan iristen da eta dohainik da. Hau jaso nahi duenak aski du bizitzaratztea.eus webgunean sartzea eta goian agertzen den laukian bere helbide elektronikoa idaztea.

Dagoeneko 9.900 dira astelehenero buletin hau jasotzen dutenak. Bertan biltzen dira webgunean aste osoan zehar atera diren informazioak: aste horretako lanak, albisteak, bideoak, agendako ekitaldiak...

"EGONARRIA" WEB TELEBISTA SAIOA

Apirilean jarri genuen ikusgai *Egonarrria* web telebista saioaren lehen atala. Saio honi ekitea erabaki genuen lurrari loturiko azpisektoreak ezagutzeko, gai

horietako bakoitzean sakontzeko eta lanean ari direnei ahotsa emateko. Hamabi astez, Eli Pagola eta Mattin Jauregi gazteek aurkeztuta hamabi gai nagusi landuko dira, eta hamabi esperientzia zehatz elkarriketatuko dituzte.

Saio hauek ikusteko, bizibaratzea.eus webgunean eta argia.eus/multimedia/egonarrria helbidean dago aukera.

TELEGRAMEKO BIZI BARATZEA KANALA: EGUNERO LAN BEREZIBAT

Sare sozialak asko elikatzen ditu Bizi Baratzea proiektuak, batez ere Facebook eta Instagram. Baina 2023ko udaberrian abiatu den Telegrameko Bizi Baratzea kanala nabarmendu dute Hernanin egindako aurkezpenean.

Egunero, goizeko 5:00etan –laborari askoren esnatzeko ordua– dosi bat jasotzen dute kanal honen jarraitzaileek.

Dosi bakarra egunean, garai horretako lan berezi bat azaltzen duena liburuean, argazki eder batekin. Mezuaren bukaeran eduki landu bat gomendatzen du: Bizi Baratzea ataleko artikulua bat, edo *Egonarriako* azken bideoa, edo garaiko lan guztiak ikusgai dauden Bizi Baratzearen webgunea.

Hauek izan ziren Hernanin aurkeztutako aurtengo berritasunak, baina sorrera eta bilakaera ere izan ziren aztergai.

EZUSTEKO LIBURUA, LANDUTAKO LURREAN

Bizi Baratzea proiektua ustekabearen sortu zen, izen bereko liburua argitaratu genuenean Jakoba Errekondok eta ARGIAk. Baina Bizi Baratzearen hazi hori ernetzeko lurra askoz lehenago landua zegoen: 28 urtez ari da Jakoba Errekondo ARGIAren astero artikulua ateratzen. 1995ean hasita, aste honetan Errekondok 1.280. artikulua idatzi du. ARGIAk, gainera, betidanik egin die jarraipena lurrari eta ingurumenari loturiko albisteei. Beste hainbat kazetariaren artean, gai horiez idazten dute Pello Zubiriak, Jenofa Berhokoirgoinek, Urko Apaolazak, Iñaki Sanz Azkuek...

2014ko udaberrian, gizartearen antzematen zen baratzearekiko jakin mina, gazteen artean baratzean ikasteko go-goia ere bazegoen, ingurumenari eta elikadurari buruzko arduraren sumatzen zen... eta ARGIAk Errekondori eskaera xume bat egin zion, ea 20 orritxo izango zituen liburuxka idatziko zuen. Eta udako oporretatik, Errekondo liburutzar ezagunarekin itzuli zen ARGIAra.

Bizi Baratzea liburua oso baten bidea zabaldu zuen: ARGIAk eta Errekondok sektoreko eragile guztiekin biltzeari ekin zioten, liburua aurkezteko eta bertako babesle izateko proposamena luzatzeko. Bestetik, liburu hau euskaraz dakien baina normalean euskaraz irakurtzen ez duen jendearengana iritsi zen gaigatik, diseinu ederragatik, hizkuntzagatik... Euskarazko liburuetan salbuespena diren zenbakiak iritsi zen honen salmenta. Liburuak erakutsi zigun euskal gizartearen gai honek duen garrantzia, eta 2016an horretara jarri ginen.

2016AN LIBURU BATETIK ILDO OSO BAT LORATZERA

2016an Bizi Baratzea lantaldea jarri genuen martxan ARGIA barruan, ARGIAko bost langilek eta Jakoba Errekondok

osatuta. Lantalde honetan egosi dira Bizi Baratzearen ekimen guztiak:

2016an Garazi Zabaletaren orria jarri genuen martxan astekaritan eta Bizi Baratzea izena eman genion Errekondoren eta Zabaletaren artikulua banak osatzen zuen sailari. Zabaletak astero erakusten digu Euskal Herrian elikadura burujabetzaren inguruan martxan den proiektu edo ekimen bat. Zazpi urtean 300 artikulutik gora idatzi izanak erakusten du zenbat proiektu dauden martxan Euskal Herrian.

Errekondok eta ARGIAk sektoreko eragileekin egindako bileretan detektatu zituzten beharrei erantzunez sortu zen *Ilargia eta Landareak* agenda: ilargiaren arabera garaian garai zer lan egin behar diren azaltzen du, lau esparru hauetan: baratzean, fruitu baratzean, basoan eta lore baratzean. 2016an kaleratu zen lehen agenda horretarako Antton Olariaga hautatu genuen ilustrazioak egiteko, eta geroztik urtero agenda hau Jakoba eta Anttonen uztarrria izan da. Urtero agendak gai bat izaten du ardatz, adibidez 2024koaren gaia "Animalia laguntzaileak II" izango da, aurtengo agendak landu duen informazioa osatuz.

Usurbilgo Alkartasuna kooperatibak eta Biolurrek ateratzen duten *Ilargiaren Egutegia* sortzeko lantaldean ere parte hartzen du 2016az geroztik ARGIAren Bizi Baratzea ildoak.

Eskoletan erabilgarri izango den materiala eta ezagutza sortzen ere saiatu gara: Eat Think proiektuarekin ikasturtean zehar lantzeko liburuxka argitaratu genuen. Bestetik, Errekondok hitzaldi asko ematen ditu baratzea duten eskoletan, eta Inguru Gela proiektuaren barruan, irakasleei zuzendutako hiru saio ematen ditu urtero, irakasle horiek ondoren eskola baratzeak sustatu ditzaten.

2016tik gaur arte, argitalpen hauek atera ditu ARGIAk Errekondorekin batera: *Bizi Baratzea*, *Altxa Porru* komikia –bertan 8 komikilarik egin zituzten baratzea gai gisa hartuta beren lanak–, *Ilargia eta Landareak* agenda urtero, Errekondoren ARGIAko artikulua hautatuak biltzen dituen 111 liburua, eta *Etxeko Landareak* liburua.

Azken liburu honek, jauzi hau ekarri zuen egiteko moduan: ARGIAko baliabide grafikoak elkarlanean aritzea hasieratik idazlearekin batera. Hau da, Dani Blancok propio atera zituen libururako argazkiak eta Maitane Gartzian-

diak diseinatu zuen liburua. Lan molde hau errepikatu da ondoren etorri diren liburuetan.

PANDEMIAN ELKARLANA JORRATU ETA SENDABELARRAK BILDU

Pandemiak ekarritako estuasunean, bi aurrerapauso eman zituen 2020an Bizi Baratzeak:

Erakunde publikoek herrietako azokak debekatuko zituztela iragarri zuten eta baratzerak joatea ere galarazi zuten. Errekondok hori salatuz artikulua idatzi zuen eta oihartzun handia izan zuen. Azoken eta laborarien aldeko elkartzasun ekintzak izan ziren eta ARGIA agroekologia mugimendurekin harremanetan jarri zen elkartzasuna helarazteko. Horrela, agroekologia mugimenduko eragileekin batera, Lurra Herriari Deika kamixetarik atera zituen. Lurraren defentsa ekarri nahi izan genuen lehen lerroa mezu horrekin. Bestetik, agroekologia hitza gizartearen ezagutzera emateko premia agertu zuten laborari txikiek eta horri lotuta hainbat erreportaje eta Lurra Herriari Deika bideo sorta egin zituen ARGIAk. Geroztik agroekologia mugimendurekin eta Biolur elkartearekin ARGIAk duen elkarlana indartuz joan da.

Beste alde batetik, pandemiak osasunaren gaia lehen lerroa ekarri zuen, eta sendabelar liburua argitaratzea bururatu zitzaion Bizi Baratzea lantaldeari. Gaiaren inguruan ezagutza aberatsa izateaz gain dibulgazioan bidea egina zuela baloratuta, Garbiñe Larrearengana jo genuen. 2021ean argitaratu zen *Sendabelarrekin dakitena* izeneko liburu honek ere lortu du euskarazko argitalpenetan salbuespena den harrera izatea. Dani Blancok atera zituen libururako argazkiak eta Maitane Gartzianidiak diseinatu zuen.

Handik urtebetera, 2022an, Garbiñe Larrearekin sendabelarre buruzko bigarren argitalpena kaleratu zuen Bizi Baratzeak, honakoan izenak berak dioen moduan, *Sendabelar baratzea* lantzerak gonbidatzen gaituena, nahi bada biribilean ipinita, urte osoan bere zati bat loretan egon dadin.

Lehen sektorearekin elkarlanean jarraitzen den heinean, eta Bizi Baratzea proiektuko kolaboratzaile sarea zabalduz doan heinean, erretuko dira hurrengo urteetako asmo berriak. Bizitza desiragarriak lantzeko erramintak eskaintzen jarrai dezala Bizi Baratzeak! ●



ZERUA BERTSOTAN, GU BELARRETAN



JOSEBE BLANCO
@HAUSNARREAN

Zergatik irudikatzen dugu denboraleroa zuzen? Zuzen-zuzen, gauza gutxi, lautadetako autopista infinituak, adibidez. Baina bizitza ez, bizitza bihurtuak da, eta hainbatetan, espiralak ditu maite, biraka aritzeko.

Horietako batean gaude: aurtengoa bukatzen ari gara eta,aldi berean, hasiera ematen ari gatazka hurrengo kanpainari. Esnea gero eta urriagoa den garaian, negurako belarrak amets, datorren urtean arkumeak eta esnea izatekotan.

Negu-udaberrian, esperantza lurra bezain lehor genuen. Maiatzak, biak busti; eta belarretan hasteko garaia hemen. Egunean zehar eguraldiari behin baino gehiagotan begiratzen diogun arren, nahikoa ez, eta irratia piztu behar. Planak gauzatzearen misterioa zeruak ezarritako baldintza hipotetikoaren lainotan ezkututzen da. Eguraldia da aginte ia bakarra.

Eguraldiak betetzen digu egutegia, eta horren gaitetik ezer gutxi, larrialdiren bat,

agian. Asko baitugu jokoan. Dena. Artaldearen existentzia bera. Belarrik izan ezean, neguan zer jango ardiek, bada? Erostea aukera beti dago, noski. Zein prezioan, ordea? Eta belarraren kalitatea?

Historiak erakutsi digu baserriak bere burua mantentzeko ahalik eta autonomoen izan behar duela. Egun ere, lege hori oso presente dugu parajeotan.

Orain dela aste batzuk, Nafarroa Garaitik heldutako mezua: lehortea dela eta datorren urterako bazkarik ez dela izango Gipuzkoako abeltzain ekologiko guztientzat. Beraz, aurtengo belarra inoiz baino garrantzitsuagoa da.

Gerta liteke hurrengo kanpaina zerealik gabe pasatu behar izatea. Nola eutsiko diote ardiek zereal nahasketak ematen dituen indarra eta energiarik gabe? Beharbada, pentsatu beharko dugu Euskal Herriko edo inguruko lurraldeetako nekazari txikiei erosi beha-

egonarria
Lurrari entzuten dion saioa

Gai nagusia: **Erlezaintza**
Esperientzia: **Biosasun olioa**

Erbel erle beltzaren elkarteko Egoitz Galartzak azaldu du erlezaintza zertan den. Esperientzien atalean, Eusebio Gaintzak Biosasun olioaz azalduko du.



ENERITZ ARZALLUS

argia.eus bizibaratzea.eus

rean, urrutiko zerealak ekarri beharko ditugula? Zein baldintzatan? Eta prezioa?

Galdera gehiegi bizitzaren kartografiarako. Oraingo zeruan baino ezin irakurri datorren urteko mapa. Halere, badut kezka bat.

Lagun batek dio orain ez bezala, lehengo hodeietan idatzitako mezuak argiak eta espero zitezkeenak zirela; ziklikoak. Orain, aldiz, eguraldiarekin – eta ondorioz, naturarekin – dena dela inprobisazioa, ez bertsolariena bezalakoa, baizik eta inprobisazio inprobisatu eta deskonpasatua. Ez erritmo, ez errima.

Bertsolariek, teknika eta erritmo jakin batzuk erabiliz, hitzekin marrazten dituzte mapak. Bertan irakurgai daude bizitzak dituen kiribilak, ez dago lerro zuzenik. Izan ere, bertsoak, izango bada, biribiltasuna eskatzen du.

Zerua bertsotan nahiko nuke, borobil, guk belarretan egiteko. ●

EREIAROAN IZARREN NEKAZARITZA ETA IZAR-IHINTZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

1 966an Andima Ibiñagabeitia Idoiaga handiak *Unai eta Alor-kantak* itzulpena argitaratu zuen (*Bucolicon liber* eta *Georgicon libri*), Virgilio (K.a. 70-19) latindar poeta ospetsuenetarikoaren idazlanak osorik bilduz. Izugarrizko saioa egin zuen itzultzaileak kultura klasikoa euskarara ekarri eta euskara klasikoaren mailara jasotzen. Era berean ekarri zizkigun Lukrezioaren *Izadiak* (*De rerum natura*), Ovidiusen *Maita-bidea* (*Ars amandi*) eta Katuloren poemak, besteak beste. Zientzia-gaiak ere itzuli omen zituen, zehaztasun nabarmenez agi danean; horietako batzuk argitaratu gabe daude oraindik, Lazkaoko beneditarren komentuan. Hara hurbildu beharko dugu...

Virgilio medikuntza eta naturaren gaineko zientziak ikasi zituen poeta zen. *Alor-kantak*-en nekazaritzari buruzko informazio ugari biltzen du. Begira hark esaten zuena nola itzuli zuen filosofia, teologia eta zuzenbide kanonikoa ikasi zituen Andimak: "Izarrak ikertu behar dira haiek erakusten baidituzte erein-aroak". Postura eder bat jokatu nuke Andimak horren berri bazuela, bere Elantxobeko jaiotetxean eta ikasten eta irakasten hara eta hona ibili zen komentu ugaritako baratzetan entzunda. Izarrek erakusten dizkigute erein-aroak, eta batek esan dezake baita gainontzeko lanenak ere. Hori da, gutxi gorabehera, gaur egun nekazaritza biodinamikoa esaten zaiona. Baina kontuz hori aipatu, apika unibertsitateko doktoreren bat aztoratuko zaizu-eta.

Erein-aroak bi ditu gure egutegiak, azaroa eta ekaina. Bietan gure elikaduraren oinarritzko jakiak izan ditugun landareak ereiten dira: azaroen ekialdetik, Virgilioren lurraldetik barrena, ekarri genituen laboreak, tartean ogia edo garia (*Triticum aestivum*), eta ekainean mendebaldetik, Andima erbes-



teratuta hil zen ingurutik, ekarritako artoa (*Zea mays*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*) eta kuia (*Cucurbita pepo*).

Azken hirukote hori ereiteko sasoi orain da, erein-aro, erinzaro, ereitaldi, erein-garai, ereingiro eta ereiario. Ereiaro esaten zaio ekainari, baita ere ereilero, bagila, arramaiatza, udaila, errearoa, jorraila, maitza berria, orril-berria, erremaiatza, garagarria eta garagartzaroa; azaroko erein-aroan ereindako garagarra (*Hordeum distichon*) heltzen den aroa delako. Gero etorriko da garila, uztaila, garia heltzen den aroa. Eta uztaila, uzta nagusiaren hilaren izena darama, ogia orduan biltzen delako.

Garagar, gari eta abarreko laboreak larrainean jo edo eultzitzen dira; udako lana, negua goserik gabe igarotzeko. Honela dio Virgiliok: "Gauza asko hobeto egiten da gau hotzean edo goizeko izarrak soroak eguzki berriarekin ziprztintzen dituenean. Gauzez uztondo ahulak eta pentze lehorrak hobeto mozten dira; gauzez ez da inoiz izar-ihintzarik falta. (...) Udaren indarrean gari gorritzat biltzen da, eta orduan ere larrainak uzta beltzarana eultzitzen du. Biluzik goldatzen du, eta biluzik ereiten du. Neguak nekazaria nagiarazten du. Hotzaren zorroztasunean izaten da baseritarrek bildutakoaz gozaten dute-

nean eta jai alaietara elkar gonbidatzen dutenean; negu distiratsuk ematen du hori, zainketak urruntzen dituenan".

Erein haziak eta gozatu urteko egun luzeenetan. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Maiatzaren lehenengo hamabostaldian landatu genituen piperrak. Ondorengo egunetan hotzak harrapatu zituen, eta harrezkero, kolore horixka dute. Badago ezer egiterik berdetu daitezen? (Izaskun)

Zalantzarik gabe eguraldia izango da arrazoi nagusia. Hala ere lasai hartu. Beroak badatoz eta piper berdeegia, luzeegia ez da komeni bestela asko luzatzen da eta lorea eta fruta geroago hasi. Hobe da indar gutxixegorekin haztea, zabalagoa behetik.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

HENDAIAKOOP BAZKIDEEN DENBORARI ESKER PREZIO ESKURAGARRIAK DITUEN SALTOKI KOOPERATIBOA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



par Euskal Herrian eta Bidasoa aldean egon den saltoki kooperatiboen loratzearen baitan kokatu daiteke Hendaiakoop proiektuaren sorrera. 2018an hasi ziren lehen pausoak ematen nekazaritza iraunkorraren eta bestelako kontsumo ereduen alde egin nahi zuten zenbait kide, eta oparoa izan da bidea. Saskien banaketa bidez hasi ziren funtzionatzen, baina denborarekin, Hendaia erdigunean saltoki kooperatiboa irekitzera iritsi dira. Ia 300 bazkide dira egun. "Hasieratik erakunde parte-hartzailea sortzea zen helburua, konpromiso aktibo bat eskatuko zuena", adierazi du Jokin Etxebarria administrazio kontseiluko kideak.

KIDEEN PARTE-HARTZE AKTIBOA OINARRI

Hendaiakoopen balioez galdetuta, zerrenda luzea egin du Etxebarriak: "Norbere kontsumoaren aktore izateko tresna sortu nahi dugu, ahalik eta jende gehienari kalitatezko janaria helarazteko, tokiko produkzio iraunkorra eta ingurumena eta pertsona errespetatzen dituen bultzatzeko eta prezio justuak izateko". Azpimarratu

duenez, hasieratik garbi zuten denda "elitista" bihurtzea saihestu nahi zutela, edonorentzako moduko proiektua bultzatzea baita haien asmoa. Ehun euro jartzen ditu kooperatibista bakoitzak: horietatik 70 proiektua uztean errekuperatuko ditu, eta beste 30 kooperatibarentzako ekarpena dira.

Prezio ahalik eta eskuragarrienak bultzatzeko, produktuaren prezioen marjinak txikiak direla dio kideak, eta kooperatibista bakoitzak bere denbora eskaintzen dio proiektuari. "Lau astero, kooperatibako kide bakoitzak hiru ordu eskaini behar dizkio proiektuari, horretarako dauden lantaldeetan: janari saltzaileak dira batzuk, beste batzuk ekoizleei produktuak erosten dizkiete, eta azkenik, kudeaketa eta komunikazioan aritzen direnak daude". Modu horretan, bazkide bakoitzak bere gaitasun eta gustuen araberako ekarpena egiten dio kooperatibari, eta lan ordu horiei esker, prezioak ere eskuragarriagoak dira denentzat. "Gaur egun, langile bat ere badugu, lanpostu bat sortzeko konpromisoa ere hasieratik baikenuen", gehitu du kideak.

EHUN EKOIZLE BAINO GEHIAGOREKIN LANEAN

Hendaiakoopetako dendako produktuen %20 Bidasoakoa da, eta %65 Euskal Herrikoa. "Batzuk bio etiketadunak dira, besteak ez, baina denak dira oinarrizko engeiamendu ekologikoa edo bidezkoa dutenak", dio Etxebarriak. Alegia, zigilu ekologikoa ez dutenen kasuan ere, laborantza eredu iraunkorretik datozela egiaztatzen dute kooperatiban. "Guretzat garrantzitsua ez da eko izatea soilik, baita ere produktuaren atzean dauden lan baldintzak duinak izatea, produktuak sasoikoak izatea, ibilbide laburrekoak, garraio partekatua bidez mugitzen direnak... Azken urteotan, esfortzu handia egiten ari gara ontziratze gabeko produktuei lehentasuna emateko", dio.

Kooperatibistek erosketak saski osoa egin dezakete bertan: fruta, barazkiak, haragia, urdaitegia, produktu beganoak, arraina, izoztuak, edariak... "500 produktu inguru ditugu dendan, eta bertako ehun ekoizle ingururekin egiten dugu lan. Aukera ederra da haientzat ere salmenta guneha izatea". ●

'DESMUNTATZEAK ETA ORNAMENTUAK' LIBURUA

Erresistentzia artistikoa, deseraikitze kapritxosoetan

Azken urteetan euskal prentsan publikatu den arte-kritika zer edo zer jarraitu duenak ezagutuko ditu Jone Alaitz Uriarte eta Mikel Onandia. Jakingo du, halaber, nolako begirada zorrotzez disezionatzen dituzten praktika artistikoak euren artikuluetan. Eta horregatik interesatuko zaio bien elkarlanetik sortu den *Desmuntatzeak eta ornamentuak* liburua: gaur egungo bost euskal artistaren lanetan sakontzeko leioa izateaz gain, gure testuinguruaren erradiografia baterako osagai ugari eskaini dute lan horretan, Sahatsa Jauregiarekin, Oier Iruretagoienarekin, Damaris Panekin, Daniel Llariarekin eta Nora Aurrekoetxearekin izan dituzten solasaldien bitartez.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  EGILEEK UTZITAKOAK

Belaunaldi bertsukoak dira liburu-ko protagonistak, denak 1980ko hamarkadan jaiotakoak eta diziplina ugaritan aritutakoak. Egileen ustez, badira beste zenbait osagai ere, artista horien lanak elkarren artean erlazionatzeko aukera ematen dutenak: "Formakuntza-ingurune bat eta harreman- eta erreferente-sare bat partekatzen dituzte, zeinek zenbait parekotasun, egiteko eta artea ulertzeko modu determinatzen baitituzte", liburuaren hitzaurre

mamitsuan azaldu dutenez. Dena den, Uriarteren eta Onandiaren asmoa ez da liburuko bostekoa belaunaldi baten ordezkari gisa aurkeztea. Argi diote: "Gure ideia ez da kanon itxi bat ematea".

Baina hori esanda, bost artista horien interesguneak eta ekoizpenerako daukaten baldintzak islatuta daude belaunaldi bereko beste askoren ibilbidean ere, egileek azaldu dutenaren arabera. "Azken finean, sistema baten parte gara eta hein handi batean honek zuzenean

edo zeharka baldintzatzen du artea ekoizteko modua, baita ere obrak erakutsi eta aurkezteko modua, formatua, temporalitatea...", esplikatu dute. "Bista orokor honetatik abiatu gara lehendabizi, bizi eta, aldi berean, parte garen sistemaren diagnostiko edo analisi bat egin nahian, ondoren bost artista hauen singularitasunean arakatzeko, bakoitzak unibertso propioa duelako eta hori zelako benetan erakartzen gintuena eta liburu hau egitera bultzatu gaituena".



HUTSUNEA BETETZEN DUEN LIBURUA

Lana autoeditatzeak eman dien askatasunaz baliatuta, ohiko publikazioen aldean diferentea den liburu-objektua da *Desmuntatzeak eta ornamentuak*. Elkarrizketa bakoitza artistaren biografiarekin hornitu dute, zeinean sortzaile bakoitzaren formazioa, egindako erakusketak edo lan egiteko dauzkan baldintza materialak ezagutuko ditugun, besteak beste. Gainera, bakoitzaren lan

batzuen argazkiak ere tartekatu dituzte, elkarrizketen edukia behar bezala kokatzeko. Kopia kopuru mugatua inprimatu dute eta ale bakoitzak gerriko moduko bat du, elkarrizketatutako artisten obren erreproduzioekin.

Protagonista dituen artistei dagokionez, honakoa diote egileek: “Urteetan etengabe lanean aritu dira, eta momentu honetan, merkatuaren parte izan ala ez, beraien lana ikusgarritasun maila interesgarri batean dago”. Alegia, gazteak

izan arren, kontuan hartzeko moduko ibilbidea osatu dutela jada; eta hain zuzen horregatik, liburu formatuan beraien lanaz aritzeak aukera eman die la egindakoari perspektiba zabalagoz begiratzeko. “Erakusketa batean artea zuzenean ikusteko aukera duzu, eta hori da artearen esparru naturala; baina liburu edo katalogo bat erakusketa baten ifrentzu gisa ulertzen dugu, alegia, artearen edo artisten alderdi diskurtsiboa garatzeko euskarri gisa”, azaldu dute Uriartek eta Onandiak.

Bestalde, hutsune bat betetzeko ere lagungarri izango da: ez dago agertzen diren artistei buruzko testu kritiko askorik –ezta, oro har, haien belaunaldikideei buruzkorik ere–. Hemendik aurrera ordea, haien arte-jardunaren atzean dauden ideiak edo lan-prozesuak aztertu nahi dituenak, obra honek sortu duen oinarritzko kanpalekutik abiatu ahalko du.

POSMODERNITATEAREN ADIERAZPEN ZEHATZ BAT

Zergatik elkartu bost artista hauek liburu berean baina? Garaiaz eta testuinguruaz gain, zertan egiten dute bat? Egileen ustez, posmodernitatearen adierazpen zehatz baten erakusgarri izan daitezke euren obrak: aurreko belaunaldietatik jasotako narratiba handiak deseraikitzea, utopiekiko begirada ezkorra, naturalizatuta zeuden aspektu artistiko ugari errebisiopean jartzea... Horiek denak ez dira, ordea, *Desmuntatzeak eta ornamentuak* liburuan hitz egiten duten artisten eskutik iritsi: “Euskal Herrian 1980ko hamarkada hartan, Oteiza eta posminimalismoa abiapuntu, eskultura egiteko modu berriak definitu ziren, eta erreferente berriak ere agertu ziren, adibidez, New York hiria”, azaldu dute Uriartek eta Onandiak. “Ondorengo artistek bide horiek jarraitu dituzte, konbentzio politikoak, generokoak edo artistikoak desmuntatzen. Esango genuke paradigma horretan jarraitzen dugula, baina posmodernitateak definitu pluraltasuna, mintzaira eta lan egiteko modu ezberdinen errekupeazioa eta lehengai edota teknika ezberdinen hibridazioa, izan artista baten ibilbidean zein obra zehatz batean bertan, orokortu edo areagotu egin dira, egungo praktiken ezaugarri nagusi bihurtzeraino”.

Beste modu batera esateko: “1960ko eta 1970ko euskal artistek artearen kontzeptzio politikoa bazuten, nazio eraikuntzan identitate propioa defini-

tuko zuen eta tradizioa eta abangoardia lotuko zituen mintzaira bat sortzea, alegia. Bere aldetik, 80etan eta 90etan lanean hasitako artista batzuek, testuinguru ezberdin batean, egoera politikoa, gatazka betean, distantzia kritikoz aboratu zuten, identitate kodeetan arreta jarrita eta horiek deskontestualizatuta. Egungo belaunaldi gazteak azken horien lanak erreferente izanik hasi dira lanean, baina jada post-biolentzia errealitate batean”, egileen arabera. Azken 40 urteetan nagusitu den deseraikuntzatean, beraz, Jauregi, Iruretagoiena, Pan, Llaria eta Aurrekoetxearen belaunaldiak ekarpen partikularrak egin ditu: “Ziurrenik garai berriak bizi dituztelako, bestelako aspektuak ere gehitu dizkiete, hala nola *camp* kontzeptuaren zentraltasuna edota formaren eta ornamentuaren arteko erlazio tradizionalaren berrikuspena”.

Nolanahi ere, horiek ere ez dira liburuko artista guztiak maila berean partekatzen dituzten ezaugarriak, izan ere, Uriarteren eta Onandiaren ustez, egun nagusi den joerarik baldin badago, pluraltasuna da hori: proposamen ugariaren arteko elkarbizitza. Jauregiren eta Llariaren lanetan ikusten da modu nabarmenean *camp*-aren eta *kitsch*-aren aldarrikapena. Ornamentuaren ideari dagokionez berriz, Aurrekoetxearen lanetan agertzen da modu nabarmenean egileek azaldu dutenez, “azalekoa den hori, estrukturari eragiten ez dion apaingarria, kapritxozko forma” lehen planora ekartzen duenean: “Forma litzatekeen hori estructures bilakatzen da, txirikordekin egiten duen bezala. Berez ilea batzeko erabiltzen den forma, ondo tentsatuz gero, egitura bilakatzen da”.

PROZESUAREN GARRANTZIA, AKADEMIAREKIN TENTSIOAN

Liburuko elkarrizketak irakurrita, bada artista guztiak emandako azalpenetan arreta deitzen duen beste ezaugarri amankomun bat ere: metodologia itxiak eta obrak gehiegi planifikatzeko joera alde batera utzita lan egiten saiatzen direla diote. Azken emaitza prozesuan zehar erabakitzen dute, ideia finko batetik edo hasierako zirriborro batetik abiatu beharrean. “Prozesu horretan gertatzen direnak, izan akatsak edo usetekabeko topaketak, bukaeraraino eramango dituzte, eta hor dagoen zintotasun hori interesgarria egiten zaigu”, Uriartek eta Onandiak aitortu dutenez.

Ez da, berriz ere, artista hauek baka-



“Erakusketa baten
ifrentzu gisa
ulertzen dugu
liburua, artisten
alderdi diskurtsiboa
garatzeko euskarri
gisa”

rik definitzen dituen ezaugarria, baina edozein modutan, galdera bat mahai gainean jartzeko balio du: nola uztartzen da sormena ulertzeko modu, nolabait esateko, “espontaneo” hori arte-ikas-keta arautuekin? Uriartek eta Onandiak gogora ekarri duten moduan, XIX. mendearen bukaeran modernitatea definitu zenez geroztik ikus daitezke artisten eta akademiaren arteko harreman gatazkatsuak. Baina egoerak baditu bere paradoxak ere: “Azken hamarkadetan,

modernitatearen eta abangoardiaren formak sistemak asimilatutak izan dira, eta posmodernitatean, paradoxikoki, instituzioek eta akademiak bere egin dute mintzaira hori, estandarra bihurtzeraino. Beste era batera esanda, gaur egun instalazioak, teknologia berriak eta formalki abangoardiakoak diren mintzairak akademikoak dira. Hori da unibertsitatean irakasten dena. Horregatik, artea eta artistak beti daude tentsioan akademiarekin. Metodoric eza, prozesua zentroan jartzea, esperimentazioa, zentralak dira artista garaikideen praktketan, eta lan egiteko modu horien transmisioa dago jokoan”, liburuen egileen ustez.

Hori esanda, liburuan garbi geratzen da EHUren Arte Ederren fakultateak euskal arte-sisteman rol garrantzitsua jokatzen duela. “Azken hamarkadetako artisten gehien-gehiengo bertatik pasada, baina berau osatzen duten bestelako instituzioak –Arteleku (1988-2014), Kalostra (2016), Jai (2020-2023)– edota artistek kanpoan egiten dituzten egonaldiak (izan Erasmus, izan nazioarteko erresidentziak) funtsezkoak dira”, Uriarteren eta Onandiaren ustez. “Irakasteko modu ezberdinak ezagutzea garrantzitsua da, ez baita modu bakar bat. Eta batez ere, artistek artistekin lan egitea”.

ARTEA, ERRESISTENTZIARAKO GUNE

Artisten formakuntza-lekuetatik abiatuta, eta *Desmuntatzeak eta ornamentuak*-eko protagonisten ibilbideak kontuan izanda, Euskal Herriko panoramaren zenbait ezaugarri eta gabezia ere destilatu daitezke liburua irakurriz. Besteak beste, artista-kopuruaren eta komisariotzan dihardutenen arteko desproporzioa, besteak beste Oier Iruretagoienari egindako elkarrizketan aipatzen dena. Gehienek Euskal Herriko esparruaz egiten duten balorazioa ez da bereziki ezkorra, dena den; baina egungo sistemaren mugak agerian geratu direla dirudi.

“Kontua da”, azaldu dute Uriartek eta Onandiak, “une batetik aurrera, batez ere 35 urte bete ostean, artista gehienek arazoak dituztela profesionalizazio erabatekora jauzia egiteko. Bildumagintza pribatua oso baxu dago, eta laguntzei dagokienez, desoreka dagoela dirudi. Zentzu horretan, errealtatean inbutu modukoa da adin batetik aurrera. Gainera, herri txikia gara, eta zirkuitua arin agortzen da. Hori dela eta –eta hau ez da, berez, txarra– artistek kanpora egin behar dute. Kontua da ea baduten, kanpoan egon edo lan egin ostean, bertara bueltatu eta gertzeko aukerarik. Agian nazioarteko sareak sendotzea falta da”.

Beste norabide batzuetara ere begiratu dute: arte-kritikariaren figura kasik desagertu egin da, jardun horrek prentsan lekua galtzearekin batera; eta aldiz, hezkuntzarekin eta programazioarekin lotutako figurak gailentzen joan dira, “seguruenik sistemaren beraren bilakaera dela-eta”, egileen ustez. Une honetan gehiago esploratu ahalko lirartekeen aukerak ere aipatu dituzte: “Kanpoko komisarioak hona ekartzea –neurri batean egiten dena, baina agian ez nahikoa– edota hementxo komisarioak kanpora joatea izan daiteke bide bat”.

Gabeziak gabezia, Uriartek eta Onandiak uste dute arteak oraindik “erresistentziarako gune” izaten jarraitzen duela gurean. Hitzaurreko ideia horri buruz galdetuta, egileek azaldu dute artisten merkatuarekiko jarrerak adieraz dezakeela erresistentziarako tendentzia hori: Damaris Panen kasua ekarri dute gogora, adibidez. “Hainbat urtez lan egin du, gelditu barik, apenas galerietan erakusketak egin gabe, eta orain ikusgarritasuna



“Egungo artista gazteak jada post-biolentzia errealtate batean bizi dira”

eta leku bat lortu du merkatuan, baina ez bilatu duelako, suertatu zaiolako baino”. Ez da liburuan agertzen den mota horretako apustu bakarra, noski. “Dani Llaríak bere elkarrizketan aipatzen du bera betiereko *amateur* kondizio horretan eroso ikusten duela bere burua, bere kasa, presio justuekin, artearen praktikan jardunean, esperimentatzen, probatzen eta ikasten eta hor badago nolabaiteko erresistentzia bat”. ●



LIBURUA

Lokarriak solte



DONOSTIA KULTURA

POSTAL BAT DESERTUAN JULEN APELLA SANTAMARIA

BALEA ZURIA, 2023

MADDI GALDOS

Postari dagokiona omen postala, eta zorionekoren batek jasoko du halakorik datozen hilabete beroetan. Gerau ere bagara dohatsu: uda bezperetan heldu zaigu esku artera Julen Apella Santamariaren (Berriz, 1998) lehen argitalpena. *Postal bat desertuan* (Balea Zuria, 2023) izendatu du poema-bilduma gazte berriztarrak, Donostia Kultura VI. Poesia Saria irabazita plazaratu duena.


Postala izan daiteke, ordea, beste hainbat gauza: errealitate den baina errealitatea desitxuratzen duen txatala, izate akasgabearen promesa aizuna, erakuslelhoa turistaren begietan, memoria eta desiraren gorpuztea, une bat beste une guztiengandik deslotuta... Lokarri eta zapatak, iratzargailuak, tren eta errailak, orbelak, suak, aipatutako postalak eta

bestetzuk darabiltza Apellak 40 poemetak iruditegia ondu eta gutasunaren (edo gutasunen) eta nitasun poetikoaren arteko tenkak, bizi dugun inguruarekiko begirada zorrotza, errotze eza zein norberarekiko arrotzea adierazteko. Zentzu horretan, bereziki deigarri dira itxuraz aurkari diren hitzen elkarketak: "Mugitzea egoteko beste modu bat / baino ez da: gelditasuna / etengabeko asaldura baten menpe".

Atentzioa ematen du, halaber, irakurleoi berri zaigun ahotsak ahots izatearekiko eta, oro har, hitza eta hizkuntzarekiko duen kontzientziak. Besteak beste, hitz soilak hots higituak direla diosku *Komunikazioa* poemak, baina baita soinu gastatu baino gehiago izan daitezkeela ere: "Esan eta sentitu bere xumean hi-

tzek / balio dezaketela mundua esateko / pintzel lodiz bada ere / eta hustasunean gutxienez zubiak eraikitzeke / hankamotz gelditzen direnean". Beharbada, ildo berean uler genezake Apellak *Ez da nahikoa* olerkian sortzen jarraitzearen alde egiten duen nolabaiteko aldarria: liburua bera baita esateke zirenak esaten asmatzeko saiakera.

Izan ere, sorkuntzari eta literaturari gorazarre ere bada liburua, orain arte aipatu oro ariketa metaliterario doto-rearekin bilbatuta baitakarte orriok. Lerroartean ala esanbidez, han-hemenka dira erreferentzia artistikoak eta idazketaren inguruko hausnarketak. Bidaide horiek alboan, ibilbidea abiatzeko pauso irmoa eman du Apellak bilduma honekin, izan zapatak jantzita ala oin biluziekin. ●



MUSIKA

Bilobak baleki...



IKER BARANDIARAN

La Banda del Abuelo elkargunea *rara avis*-a da zentzu askotan: adinez nagusi samarrak zirela batu ziren taldea sortzeko, eta haien alde inork ezer ere eman ez zuenean, arrasatearrak ausardia osoz hasi ziren kontzertuak egiten moldeak eta belarri-zuloak apur-tzen (haienak tartean). Punk, gaztetxe eta kontrainformazio katakunbetan hazitako lagun hauek betidanik erakutsi dute, haien bailaran beste inork ez bezala punk jarrera eta izaera, eta hard-rock saiakeratik hurbil dagoen soinua. Hitzak desberdinak, irakurriak, buelta dezente emandakoak eta, jakina, oso (auto)kritikoak industria, bekaizkeria eta handinahia jaun eta jabe den honetan.

Kantuak lokalean hala moduz grabatu, kopiak egin eta lagunaren artean

banatzea izan zen luzaroan haien praktika ohikoa. Hori eta igandetan instrumentuak eta haien erabilera ia zerotik ikasteko aitzakiapean egin izan dituzten entsegu-makinazioak. Duela bospasei urte, baina, *Rock-and-rolla mailu bat* da izeneko CD-liburua kaleratu zuten, aurkezpen zainduarekin eta taldeko kide eta letrista den Josu Arteagaren zortzi kontakizun adierazgarri batuta.

Urteotan isil antzean egon dira oso-oso kontzertu gutxi, zulo ilunenetan aukeratutakoak, eginez, eta hara non pandemia zikinetik are eta amorratuago bueltatu diren (ez genuen kontrakoa espero!). Izan ere, haien kabuz –eta dotore– grabatu dituzte lokalean zortzi kantu berri gitarra jotzailearen



ANTZUA

LA BANDA DEL ABUELO & JAIME LIZARANZU

DESACORDES/DDT

gidaritzapean, eta Xabier Atxa artista herrikide arrasatearrak landutako artelanean bildu dute.

Aldaketa nabarmenena da Anek momentuz taldea utzi duela, eta okasio honetarako Jaime Lizaranzu armonika jotzaile beteranoa batu zaiela. Bestalde, lortu dute –iraganekoarekin alderatuta– definizio handiagoko soinua, eta punk-rock eta jatorrizko hard-rockaren arteko ezinezko mugan jarraitzen badute ere, Josuk beti presente izan dituen Lemmy eta Xabi Garre-ren erregistroetatik hurbilago dabil orain. Ñabardura handiko emaitza, soila baina aldi berean kateatzeko zaila: gitarra zorrotzak, erritmo ia tribalak, rock and roll gordina eta psikodeliara hurbilketa. ●



GODOTEN ESPEROAN

TESTUA: Samuel Becket

ITZULPENA: Juan Garzia

SORKUNTZA: Zurriola antzerki eskola

AKTOREAK: Nerea Arriola, Izaskun Labat, Aitor Andonegi, Guillem Moralen, Arantzazu Lizartza, Iosu Ariño, Amaia Elizalde eta Jasone Sertutxa

ZUZENDARIA: Joxerra Fachado

NOIZ/ NON: Maiatzaren 14an, Pasai San Pedroko Udal Aretoan.

Existitzeaz gain

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Hemen eta orain gertatzea da antzerkiaren legea. Horregatik da hain berezia, bizirik dagoelako. Orainarekin konektatzen gaitu, uanean gertatzen ari denaz gain ezer gehiago existituko ez balitz moduan. Ez da errepikatzen, ezin da berriro gertatu, ez behintzat modu berean. Espazio horretan konpartitzen dena bertan dauden artean soilik elkarbanatzen da. Hori da abiapuntua.

Godoten esperoan, 1940ko sorkuntza bat. Samuel Beckett dramaturgoaren obra ezezagunetarikoa da, frantsesez sortu zena eta 2001ean Juan Garziak euskarara ekarri zuena. Absurdoaren antzerkian sustraituta dago, gertatzen denak zentzurik ez balu gisa gertatzen da. Izan ere, ez da ezer gertatzen: ez da inor iristen, ez da apenas denbora pasatzen, ez dute lekuz aldatzen, elkarrizketak errepikatzen dira, ekintzak ere errepikatzen dira, ahaztu egiten dituzte gauzak, gertakarien aurrean kontura-

tuko ez balira gisa jokatzen dute, joan egiten dira eta leku berera itzuli, gauza abstraktuez hitz egiten dute, kontzientziarik ez dute... Baina guztiz kontrakoa dela sinestera irits daiteke ikuslea. Non, noiz eta zertan ari diren ondotxo dakitela pentsatzera eta gizakia bera lehen lerroan jartzera. Gauzak ez dira edozergatik gertatzen.

Gizakia eta gizartea jartzen ditu zailtzan obrak. Gu geu hemen eta orain egoteak zer esan nahi duen eta zer den egiten duguna. Gizakiaren sinpletasuna eta izatearen aberastasuna. Horretarako, antzezlan honen funtsa diren bi pertsonaia nagusi azaltzen zaizkigu: Gogo (Estragon) eta Didi (Vladimir). Zein baino zein sinpleagoa eta mozoloagoa.

Zer pentsatzen duten ere ez dakite; zain daudela, esperoan, horixe dakite. Eta iristen ez den hori, Godot da. Izan liteke esperantza, izan daiteke etorkizuna. Ezagutzen ez duguna, ez dakiguna dagoenik edo ez. Pertsonaiek konfiantza

osoa jartzen dute horretan eta kasik horretara mugatzen dute euren existentzia. Zein ederra den gizakiaren sinpletasuna, gure presentziaren jabetzea eta batez ere, zertarako garen gai, Gogo eta Didi ez baitira tuntunak. Bizitzaren zentzugabekeriak ohartuta daude, gizateriaren porrotari begirakoa dena eta desadostasuna azaltzen dute horrekiko, modu inozente batean. Injustiziak ikusteko gai dira, hala izendatu ez arren. Suizidioaz edo eta beste norabaitera alde egiteaz hitz egiten dute. Baina hor gertatzen dira. Agian hau da gizakiaren eta gizartearen nolakotasuna: orain eta horrela egotea. Merezi al du etorriko ez den zerbaiti esperoan egoteak? Existitzeak soilik ez gaitu salbatuko.

Antzerkiaren legeari men eginez, aprobetxatu, antzerki ez profesionalak oraindik interesgarriagoa egiten duen orainaldiari eusten. Datorren eta azken emanaldia: urriaren 5ean, Gasteszenan (Egia, Donostia). ●

Jordina Arnau

AHALDUNTZEA ALDARRI



BOKAZIOA, PASIO

“Lurrari lotutako familia batean jaio eta koskortu nintzen: natura eta haren zikloak nire sormen-unibertsoarentzat ezinbestekoak izan dira, lanaren inspirazio iturri. Txikia nintzenetik, kazetaria izatera jostatzen nintzen, mikrofono bat zuen kasete gisako tramankulu batekin ibiltzen nintzen nire ahotsa grabatzen... Ama eskola-irakaslea da eta urtebetetze batean arbela eskatu nuen, eskolakoa bezain handia, nik ere klaseak emateko, nire erara. Ikaragarri gustatzen zitzaidan gaiak prestatzea, eta asmatzen nuen publiko bati azalpenak ematea, baita nire ahizpa Cèliari ere. DBHko lehen edo bigarren mailan herriko telebistako saio batean parte hartu nuen, orduan hasi zen dena”.

“Gizarte justuagoa eraiki ahal izateko, lidergoen eredu berriak behar dira”

Kazetaria, aholkularia eta komunikazioan aditua da Jordina Arnau (La Selva del Camp, Herrialde Katalanak, 1991). Euskal Herrira etorri zen bizitzera duela lau urte. Hamarkada luzez kazetaritza lanetan aritu ondotik, botere komunikatiboa lantzeko erronkarekin, emakume ekintzaileei eta gizarte eraldatzeko egitasmoei zuzendutako egitasmoa abiatu du.

 SAIOA BALEZTEN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Zer da kazetaritza zuretzat?

Azken hamarkadan kazetari lanetan aritu naiz, eta azken sasoiari, gainera, Euskal Herritik, Kataluniako TV3 telebista katean lan egiteko plazera eta erronka izan dut. Duela urtebete baino gutxiago nire lehendabiziko liburua argitaratu nuen Alba Siderarekin batera: *Guia pràctica contra l'extrema dreta* (“Eskuin muturraren kontrako gida praktikoa”). Kazetaritza, kalitatezko informazio kontrastatua eskaintzeko zerbitzua da, begirada kritikoa sustatu eta gizarte demokratikoa bermatzeko aukera bat ere bai. Nazioarteko eskuin muturraren mehatxuarekin eta *fake news*-en gorakadarekin, kazetaritza zorrotza funtsezkoa da.

Lasturrera (Gipuzkoa) ailegatu eta gutxira, 28 urte zenituela, bularreko minbizia diagnostikatu zizuten...

Auto-esplorazio batean konkor bat sumatu nuen. Diagnostikoa eman zidatenean Lasturrera iritsi berria nintzen, bai, langabezia nengoen gainera, eta nire gertukoak ez nituen

alboan, hiltzeko beldurra nuen... Bizitza goitik behera aldatu zitzaidan. Ikaragarria izan zen. Minbiziak agertoki ezezagun batera eraman ninduen egun batetik bestera. Bizitza bere ahalmen eta ahuleziekin ulertzen hasi nintzen orduan.

Bizipen hartan sortu zen zure proiektuaren sustraia. Zergatik?

Birplanteamendu global horretan, argi ikusi nuen funtsezkoa zela erabakitzea nola bizi nahi dudana, nola lan egin, eta, funtsean, gustatzen zitzaidana egiteari eustea. Nire kasuan, komunikatzea, pertsonak ahaldundutzea eta beraien proiektuak eraldatzeko komunikazioan laguntzea. TV3 telebista katea utzi nuen, nire proiektuan zentratzeko erabat.

Zertan lan egiten duzu zehazki?

Komunikazio integrala ezinbestekoa da edozein proiektu aurrera eramateko eta gizarte justuagoa eraiki ahal izateko; horretarako, lidergoen eredu berriak behar dira. Abiapuntu horretatik, kontzientzia aktibatze hain-



"Ahots propioz komunikatzeak ahalbidetzen du ikusgarritasun eta proiektzio handiagoa, energia eta denboraren aurrezpena eta emaitza hobek lortzea".

bat formakuntza egiten dut, komunikazio eraldatzailea sustatuta. Era berean, aholkularitza pertsonalizatuak eskaintzen ditut eta idazten eta ponentziak egiten jarraitzen dut, gorroto diskurtsoak bukatu eta minbiziaren bizipenaren bueltan ikuspuntu feminista inplementatzeko.

Denok omen dugu errezeta propio bat. Nola lantzen da?

Norberaren errezeta izateak esan nahi du komunikazio pertsonala osatzen duten elementuen kontzientzia izatea, norberaren beharren arabera landu eta kozinatzeko. Lehendabiziko osagaia beti izaten da norbere ezagutza. Ahots propioarekin komunikatzeak ahalbidetzen du ikusgarritasun eta proiektzio handiagoa, energia eta denboraren aurrezpena eta emaitza hobek lortzea, materialki zein emozionalki. Edonork ditu bere ahots propioa lantzeko osagai guztiak, eta nire lana da horiek lantzen laguntzea.

Aholkularitzak egiten dituzu.

Aholkularitzak pertsonalizatutako lan esparruak dira, pertsonekin zein kolektiboekin lan egiteko. Euren ezine-

gonak, zalantzak edo arazoak ideietan, ekintzetan, planetan eta ahalduntze kontzientean eraldatzeko lan egiten dugu. Eta, horrez gain, hizketaldi publikoak prestatu, kontakizunaren definizioak egin, ekintzak sortu eta antolatu edo zerbitzu baten hedapena prestatzeko ere baliagarriak izaten dira. Beti, hori bai, ahalduntzea, eraldaketa eta bizitza erdigunean jarrita.

Ikastaroak ere eskaintzen dituzu. Horietako bat da "Agur impostora!" ("Agur, iruzurgile!") izenekoa.

Bai, akelarre formatiboa da, parte hartzaileen kontzientzia ernatu, ahalmena aktibatu eta euren proiektua komunikatzeko osagaiak bilatzeko ikastaroa. Helburua lortzeko bakar-kako zein taldeko dinamikak egiten ditugu. Iruzurgilearen sindromea zer den eta egunerokotasunean nola eragiten digun aztertzen dugu. Sinesmen mugatzaileen radarra aktibatu eta erretzen dugu, eta askeagoak izateko antidoto komunikatiboak lantzen ditugu gure sorkuntzan eta lidergoan.

Proiektu berriak hastea zaila da. Emakumeontzat zailagoa dela uste duzu?

Euskal Herria salbuespen gutxietako bat da, emakume ekintzaile gehiago baitaude gizonezkoak baino. Hala ere, jakina, negozio eta lidergoaren eredu estandarizatua nagusi da oraindik, gizonezkoen eginkizunetan oinarritua, eta, hain zuzen ere, horiek eraldatzeko lan egiten dut nik, erreferente berriak sortuta. Bidegabea da, baina dagoeneko sufritzen ari naiz, ama izan nahi dudalako eta ez dakidalako nola egingo dudan proiektua bere horretan mantentzeko. Laguntzak falta zaizkigu, zalantzarik gabe.

Zeintzuk dira zure erronkak aurrerantzean?

Nire burua zaintzea, gustura eta topera bizitzea, Euskal Herrian profesionalki toki bat egitea eta hainbeste maite dudan proiektuan lan egiten jarraitzea, lidergoak eraldatzeko eta gizartea justuagoa, kontzienteagoa eta berdina goa egiteko. ●

'Unabomber'-en tolesturak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Iruditzen zait gure gizartea iraultzaurreko egoera baterantz doala –horrek ez du esan nahi iraultza saihestezina den egoera sortuko denik, baina bai posibilitate errealista izango dela-. Jendearen gehiengoa ezkorra edo zinikoa da indarrean dauden instituzioekiko, alienazioa eta noraeza oso hedatuta daude gazteen artean... Agian indar horiei antolakuntza eta norabide egokia ematea da behar den guztia”.

Ted Kaczynskik 1998ko gutun batean idatzitako esaldi horretatik zenbait ondorio atera daitezke, adibidez a) iraultzak iragartzea errazagoa dela iraultzak benetan gertatzea baino, zeren b) gauzari “antolakuntza eta norabide egokia ematea” izaten baita ia beti josi gabe geratzen den hari-muturra, zapatan sartzen den harri koxkorra, olioia bota arren karranka egiten tematzen den gontza, ahaztu gabe c) gizateriak bizkar gainean garraiatu dezakeen ezkortasun, zinismo eta alienazio kopurua ikusita, baten baino gehiagoren gar iraultzaileak logaletu egiten direla azkenerako.

Ez zen hori izan berriki hil den Kaczynskiren kasua. Beste kontu bat da egin nahi zuen iraultzak ezer onik ekarriko ote zuen: hamazazpi urte iraun zuen bere bonba-gutun bidezko kanpainak AEBetan, hiru pertsona hil zituen, beste zenbait zauritu. Azkenik, *The New York Times* eta *The Washington Post* egunkarietara idatzi zuen, esanez bere manifestua publikatzen bazuten, ez zuela lehergailu gehiago bidaliko. Nondik begiratzen diozun, testu hura, *Unabomber manifestua*, gaur egungo zenbait fenomenoren aurrekaritzat ere har daiteke, sozialistak eta “ortzadar-ekzerra” jo-puntuan jartzen dituen moduagatik, baina baita garapen teknologikoa sustatzen duten kontserbadoreak seinalatzen dituen eragatik ere; Freud, Nietzsche eta Thorearen eragi-



81 urterekin hil da Ted Kaczynski “Unabomber”.

nak, luddismoaren eta anarkismoaren usainak eta, aldi berean, anti-kolektibismoa, gutxiengoaren eskubideen alde egiten diren politikei kritika... Entsalada ideologiko hori berdin irentsi zuten ekologista erradikal batzuek eta zenbait proto-faxistak –hil denean Elon Musk ere bota du: “Agian ez zebilen oker”-, baina testuaren agerpena izan zen *Unabomber*-en galbidea: bere anaiak irakurri, idazteko modua, adierazitako ideiak ezagutu, eta txukelari abisatu. Eta txukelak, urtetan bonba-igorle misterioitsuaren atzetik haizeak darabilen orbelaren antzera ibili ondoren, atzaparra gainean jarri zion argindarrik eta urik gabeko Montanako txabola batean bizi zen Kaczynskiri.

81 urterekin bere zeldan hilda agertu ostean, albisteek terrorista zoro baten irudia saldu digute, 90eko hamarkadan epaitu zutenean bezala, gutxi gorabehera. *Unabomber*-en historiatik gauza asko azpimarratu daitezke, eta horre-

lakoetan beti gertatzen den moduan, azpimarratu gabe geratzen denak mami gehiago dauka: adibidez, Kaczynski nola iritsi zen Harvardera bi kurtso aurretatuta, 16 urterekin –gutako gehienak baino puskaz azkarragoa zela, alegia-; zer nolako filosofia ezkorra irentsarazi zioten unibertsitatean Gerra Hotzaren hasiera hartan; eta batez ere, nola erabili zuten gerora *Unabomber* bilakatuko zen gaitasun handiko gazte hura, Harvarden bertan, CIAk sustatutako MK Ultra programako akuri gisa, zehatz hitz egitekotan “tortura psikologiko esperimental” gisa definitu behar diren saioetan.

Errazena zoratuta zegoela pentsatzea da. Zeren bestela, pixka bat hazka eginez gero, AEBen alderdi ilun-ilun-ilunetara zaramatza *Unabomber*-en ibilbideak. Eta pentsarazten dizu agian Kaczynski bera izan dela historia horretan intentsitate baxueneko terrorismoa praktikatu duena. ●



ARIZKUNGO BESTAK 2023



ARIZKUN ROCK

ekainak 23 · ortzirala · sarrera dohainik

www.arizkunrock.eus

19:00

Andoni Oilokiegi 

23:00

ibil bedi 

olaia 
inziarte

Bines Katiko 



hamar ken bat
irruan jrruay

berria

ARIZKUNGO
GAZTEAK

ahötsa

ARGIA

ARIZKUNGO
ESTANKOIA

baztanet
INFORMATIKA & WEB

BAZTANGO
XURIE

BERRO
BIDE

BIXTA-EDER
JARDUNA · RESTAURAZIOA

BURNE
ZURGINDEGIA

D. LAERETA



eskuz



INDAUTO
TAILERRAK

IRIARTE
HARATEGIA



KAKKA
MELON

KORO ARRUTI
FARMAZIA



SOULE

MUGARKI

serigrafia.eus

ordoki

ttipi-ttapa

Xendan



ARGIA

BABESTEKO 11 ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIA n jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

lbillbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiako

